

K...eta
Kitto!

2019-III-22

1093 zkia.



Hirugarren aroa Debako Arte Eskolan



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • www.clinicarecalde.com

TRIKOLEKU

ZURE ARTILE
DENDA EIBARREN



Puntu eta gantxillo
klaseak

Laster makrame

Astelehenetik ostiralera

10:00/12:00

16:30/20:00

Txaltxa Zelai, 1

trikoleku@gmail.com

 trikoleku



ITZALI ARGIA NATURAREN ALDE ETA EGIZU BAT PLANETAREN ORDUAREN ERRONKAREKIN!

Eibarko Udalak "Planetaren Ordua"
ekimenarekin bat eginez
ORDUBETE ITZALIKO DITU
Untzaga plazako eta
udaletxearen alboetako fokuak
zein erlojuko eta arkupeko argia
klima-aldaketaren kontrako
borrokaren keinu sinboliko gisa.

2019 MARTXOAK 30
20:30-21:30

IZENA EMAN hauetariko erronka batean:

#PLASTIKORik gabeko egunaren erronka

#HARAGIRik gabeko egunaren erronka

#ISURKETARik gabeko egunaren erronka

Egizu keinu
txiki bat
planetaren alde



Nahi duten herritar, enpresa
eta elkarte guztiek duzue
ingurumen ekimen honetara
batzeko aukera
<http://horadelplaneta.es/>
orrialdean



60+

LA HORA
DEL PLANETA





Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta inntzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

eskutitzak

– Pedigree sozialista –

Orain dela bi asteko alean Mariasun Gartzia IU-Aralarreko zinegotziak Ana Telleria PSEko zinegotziari kritika nahiko bitxiak egin zizkion. Horretarako, bere aitaren sinismenak eta militantzia sozialistaren zenbait pasadizo aipatu zituen, berme bezala, eta haren irakaspenei zor diena adieraziz: "Benetako sozialismoa erakutsi zigun".

Aitaren aurrekari horiek sekulako legitimitatea ematen diotelakoan dago edozein iritzi plazaratzeko sozialisten kontra. Ana Telleriak, berriz, ez omen dauka halakorik. Horrek sinesgarritasuna kentzen dio; odol garbirik ez azkenengo honek. Gainera, trepa bat da, poltrona batean eserita. Eta susmagarria tratu zikineta...

Aitak erakutsiko zizun sozialismoa zer den, baina ez duzu ezer ikasi. Ikusita 2006an IU-Aralar udal taldean zinegotzi azaltzen zinela, eta garai haietan zure alderdiko buruzagiak Madrazo (IU) eta Patxi Zabaleta (Aralar) zirela, dena esanda dago. Biak independentista amorratuak: Zabaletaren kasuan, HBko buruzagi urte askoan, garai ilunenetan.

Aitak seguru asko erakutsi zizun irakaspena zuk ez

duzu ikasi: sozialismoa eta abertzalekeria bi tradizio ezberdin dira. Sozialismoak "mugak hautsi behar ditugu denon berdintasuna bilatzeko" aldarrikatu du. Eta abertzaleek, berriz, beste hau: "Gu ondo gaude diruz, odol garbia daukagu, beste horiek alproja hutsak dira, alperak... Apur ditzagun kateak, gu gehiago gara". Bestela, nola ulertzen da Espainian bakar-bakarrik komunitate aberatsenetan independentismoak indarra izatea?

Poltronen beste kontu hori inbidia hutsa da. Ana Telleriaren taldeak indarra dauka eta herriaren babesa. Zuek ez. Horrela ulertzen da zuen jokabidea: denari ezetz esatea, dena oztopatzea, dena zalantzan jartzea. Besteek postuak okupatzen dituztenean poltronak dira, guk okupatzen baditugu lan eserlekuak. Horrelako posturak dituzte sasipolitikariak.

Herriko proiektuak kudeatzeko pertsona baliagarriak behar dira, eta inplikatuak, eta prestatuak. Ana Telleriak prestakuntza dauka eta odol garbirik igual ez, zeinek daki! Baina ez dauka zuk daukazu norabide eta sinismen nahasmen hori.

Jose Juan Alberdi

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MIHATS/MIHATZ/MIHETZ. - Gutxi, urri. "Mihatz dabil haren emotia".

Mehea, arina. "Negu gorrixan soiñeku mihatz mihatzakin dabil koittaua".

Sakabanatua, zarratuaren antonimoa. "Bizarra mihatz-mihatz euki arren, egunero kendu biharra zeukan".

astean esanak

"Niri elbarri geratu diren pertsonen kasua eredugarriagoa iruditzen zait: osasun arazoek sexu harremana oztopatzen dutenean, modu naturalean etortzen da bikotea 'ireki' beharra; ez da arraroa izaten konpromisoa mantentzea (seme-alabak, hipotekak, zainketa...), baina bietako batek kanpoan sexu harremanak bilatzea; hori onartzen ez duenak ez du bihotzeik, edo hipokrita hutsa da. Bada, ez dago elbarria izan beharrik: gogo falta nahikoa arrazoi baita gauza bera egiteko!"

(OIER GOROSABEL, FISIOTERAPEUTA)

"Brexitearen irteera malkartsuak kaosa ekarriko luke garraioan eta ekonomia guztiari egingo lioke kalte. Eurotunela gaur ere tratatzen da une batzuetan, baina gero kamioi bakoitzaren atzerapena 2-3 minutukoa izango da, batzbeste, eta edozer gauza Erresuma Batua bidaltzeak Txinarako balitz trataera eskatuko digu. Aduana neurri bakar bat ere ez dugu hartu hemen, Frantzia 60 milioi euro inbertitu dutenean garraio-azpiegiturretan. Gerta dakigukeen onena da martxoaren 29an 50 artikulua aplikatzea eta Brexitek Norvegiako ereduari jarraitzea, hau da, Europar Batasunetik kanpo, baina merkatu bakarraren barruan"

(JUAN JOSE ALVAREZ, ZUZENBIDE KATEDRADUNA)

"Boeing modelo berrietan aurreko bertsioetakoetan baino motor handiagoak sartu dituzte, energia %14raino aurrezteko asmoz. Baina motor horiek hegoaren azpian sartzen ez direnez, mutur aldean kokatu dituzte. Lurreratze-trena ere altuagoa egin behar izan dute, motorrei tokia egiteko. Berez abio horiek muturra jasotzeko joera dute, baina larregi jasotzerakoan indarra galtzen dute. Indar hori berreskuratzeko muturra jaitsi behar dute, abioia beherantz pikatzeraino, gero horizontalean jarraitzeko. Baina maniobrarako altuera asko behar du, asko eroriko da-eta; nahikoa ez bada, es dago errekuiperatze-ahalmenik"

(ADAM PODHORSKI, INGENIARIA)



Aurreko barixakuko irudixa, Bista Ederreko dendaren aurrian.

Kaleratzen kontra eta lan baldintza duiñen aldeko martxa egin dabe Diako bihargiñak

Greban dagoz Dia supermerkaueetako bihargiñak, “zuzendaritzak planteau dittuan kaleratzen kontra eta lan baldintza duiñen alde”, eta aurreko barixaku goizian Eibartik Ermura oiñez jua ziran, euren egoeria salatzeke martxan. Esaten dabenez, “zuzendaritzak, urtietan bihargiñak ederki esplotatu ondoren, irabazi biribillak bazkidien artian banatu eta kristoren diru-zulua egin eta gero, estatu osuan 2.100 bihargin kalera-tu nahi dittu ERE baten bittartez”. Horren aurrian greba mugagabia hasi eben bihargiñak martxuaren 11n: “Ez dogu despidorik onartuko eta EREaren negoziaziñua Madrildik hona ekartzia, informazio guztia emotia exijitzen dogu”.

Aldundixaren datorren urteko aurrekontuetarako proposamenak egin dittue eibartarrak

Imanol Lasa Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikaziño diputaua gurera etorri zan aurreko astian, aurrekontu irekixen harira Untzagako jubilaue etxian billeria egitteke. Aldundixaren jardunaren barri emotiaz gain, billerara jua ziranen proposamenak entzun zittuan Lasak. Bestiak beste, Lurraldebusen zerbitzuak hobetzia (batez be Eibar eta Donostia artian) eskatu eben eta Eibar Ospitalearen eta etxe zaharretan igogailluak jartzeko aukeren inguruko galderak egin zittuen. Billeran beste kontu batzuk be aittatu ziran, hala nola trenua, autobidia, kalidadezko enplegua eta birziklapena. Agurtu baiño lehen Lasak parte hartu ebeneri eskerrak emon zetsazen, billeria “oso aberasgarria” izan zala gaireratuta.

Bestalde, azaldu ebenez, billerara jua barik be proposamenak egitteke aukeria egongo da martxuan zihar, bai etxietara banatu




daben orrixa bete eta udal erregistruan entregauta, baita internet bidez be, gipuzkoa.eus/partaidetza atariko aurrekontu irekixen atalian. Baldintza bakarra 16 urtetik gorakua izatia da. Proposamen guztiak memorixa batian jasoko dittue ondoren, zeintzuk onartzen diran eta zeintzuk ez azalduta eta horretarako arrazoiak emonda, eta parte-hartzaille guztieri bialduko detse.

San Andres elizara bisita gidatua egingo dabe martitzenian

Ikasten alkartekuak antolatuta, martitzenian 10:00etan San Andres eliza barrutik ondo ezagutzeko bisita gidatua egingo dabe. Artearen Historixan doktore dan Satur Peña Puente eibartarraren eskutik egingo da bisita. Izan be, historialarixak ondo baiño hobeto ezagutzen dau San Andres eliza, oin dala urte batzuk horren inguruko ikerketa lan sakona egin eban eta.

Ego Ibarra batzordiak 2008xan kaleratu eban Satur Peña ikerlarixaren “San Andres de Eibar” liburua, Garay argazkilari entzutsuak 1985ian etara zittuan argazkixekin lagunduta. Liburu horretan, ondo jorratutako bost kapitulu sakonetan, San Andres elizaren zertzelada guztiak dagoz jasota: atarikuak Historixan zihar Elizak hiribilduen



fundaziñuan izan daben zerikusixa eta zeresana jasotzen dau; hurrenak, gure herriko elizaren sorreria eta izan dittuan eraberritze eta haunditze guztiak; hirugarrenak, eibartarrondako ezezagunenak diran estilo arkitektonikua eta klabiak; laugarrenak, erretaula nagusixaren historixia; eta azkenak erretaularen programa ikonografikua eta analisi estilistikua biltzen dittu. Liburuaren harixari tiraka, Ikastenek oin eskintzen daben aukera paregabiarri esker, gure herriko elementurik inportantiena gehixen aztertu daben pertsonaren eskutik ezagutu ahal izango dabe bisita egittera animatzen diran guztiak. Parte hartzeke nahikua izango da martitzenian 10:00etan elizako atian agertzia.



Kanposantua Galizia etorbideko goiko aldian kokatzea proposatzen dau EAJ-PNVk

Urkiko kanposantua hirigunetik kanpora etartzia ezin leikiala albo batera laga diño Josu Mendicutek EAJ-PNVko alkategaixak: *“Gaur egun indarrian dagan ordenantza-planian kanposantua Urkitik Altamirara, Unbe aldamera tokialdatzia aurreikusita egon arren, gu izan gara lekualdatzia bultzatu dogun alderdi bakarra”*. Gauzak holan eta Altamiran aurreikusten zan hillerrixaren inguruan herritarren aldetik jaso dittuen hainbat keja (urruti eta gaindimensionauta daguala) entzun eta gero, *“hirigunetik kanpora baiña ondo konektauta, toki atsegina eta naturalian, hau da, beste toki batian, Galizia etorbideko goiko aldia, etorbidiaren eta autobidiaren artian kokatzea proposatzen dogu geuk”*. Halan azaldu eban alkategaixak aurreko barixakuan egindako prentsaurrekuan. Bere berbetan, *“etorkizuneko kanposantua”* egin nahi dabe. Arrigorriagakuaren ereduari jarraituta, Urkiak dakan espazio bera, 7.500 metro karratu izango leuke jeltzaliak proposatzen

dabena. 600 horma-hillobi egongo lirakez (*“aztertutako premiñen arabera”*), hillarri guztiak parekatu egingo lirakez eta, nahi izan ezker, panteoiendako tokixa be egon leike: *“Maite dittuenak Urkin dittuen famelixak lasai egon leikez”*, azaldu dau Mendicutek, *“aurrez hitzartutako prozesuari segiduko jakon, beti be sensibildade haundixarekin”*.

Mendicutek diñuanetz, *“herriko beheko aldia zihero abandonauta dago eta Errebal tapoia da”*. Galizia etorbidian egin nahi daben kanposantuz gain, EAJ-PNVk beste lan batzuk egin nahi ditte han inguruan, tokixa biziberritzeko. Bestiak beste, Portalea eta Azittain lotzeko bidia (Bidebarrieta kaliarekin paraleluean), Urkizun aparkamientua (200 autotendako tokixarekin) eta Urkizutik kanposantu barriraiño juateko igogaillu publikua. Horrekin batera, herrixaren erdialdia, *“Fermin Calbeton kaletik Urkizuraino, egunero oiñezkuendako izatia da nere asma”*, diño Mendicutek.

autuan

ALTSASUKO MANIFESTAZIÑORAKO AUTOBUSA

Altsasukoak Aske plataformatik domekarako deittu daben manifestaziñora juateko autobusa antolatu dabe, Eibartik jua nahi dabenendako. Ego Gaiñetik urtengo da autobusa, 10:00etan eta bueltakua, barriz, 15:00etan izango da. Txartelak 12 euro balixo dau (7 euro ikasle eta langabetuendako). Gaur da izena emoteko azken eguna (horretarako zerrendia Guridin laga dabe).





Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hillerrixaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>☎ 943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	



centro médico eibar

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
 ☎ **943 12 02 00 – 943 12 02 04**

1) Kardiologia	9) Barne Medikuntza
2) Zirugia	10) Radiologia
3) Dermatologia	11) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	12) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	13) Koloproktologia
6) Ortodontzia	14) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	15) Foto-depilazio Unitatea
8) Psikiatria	16) Psikologia



Kuartela tokiz aldatu eta aisialdirako gunia sortu nahi dabe sozialistak

Eibarko PSE-EEK aditzera emon dabenez, hilliak daroiaz alkatiak Guardia Zibillaren kuartelak Egigurentarren kalia okupatzen daben tokixan aisialdirako gune bat sortzeko biharrian. Esku artian daken proposamenaren arabera, zezen-plazia barriztatu eta estaltzia eta lur azpitan parkiña egittia be aurreikusit dabe. Holan, aisialdirako 6.000 metro karratu baiño gehixagoko berdegunia lortzeko aukeria daguala diñue. Ildo horretan, alkati Madrillen egon zan aurreko astian, Barne Ministerixoko eta Guardia Zibilleko arduradunekin berbetan, kuartela tokiz aldatzeko daguazen aukerak aztertzen. Billerak zelan jua diran pozik azaldu da De los Toyos eta proiektuak aurrera egin leikiala pentsatzen dau.

Amañako eskolakuak birziklitzeko olixua biltzeko kontenedoria lortu dabe

Amañako herri ikastetxian hondakiñen gaixa landu dabe ikasliak. Eskola guztiak hartu dau parte proiektuan, gaixari zikloka helduta eta, horren atxakixarekin, arlo guztiak (euskaria, matematikak, ingurumena...) landu dittue. Ikastetxeko arduradunak azaldutakuaren arabera, famelixetan, auzuan... eragin nahi izan dabe. Ikastetxian landu dittuen gaixetako bat olixuaren birziklapena izan dala aprobetxauta, Debabarrena Mankomunidadiari erabillittako olixua biltzeko kontenedoria auzuan pintzeko eskatu detse eta, eskaerari erantzunda, aurreko astian, eguenian jua ziran kontenedoria ipintzera. Hortaz, Amañako ikastetxiak egin daben biharri esker, auzuan bizi diran guztiak olixua birziklitzeko aukeria esku-eskura eukiko dabe aurrerantzian.



ETBren "Gertutik" saiuk aurreiritzixak aztertu dittu Eibarren



ETBren 'Gertutik' programakuak jendiak atzerritarren inguruan dittuan aurreiritzixak aztertzeko jolasa egitten ibilli ziran Eibarren oin dala egun batzuk. Darling Touchani abokatuarekin egindako esperimentuari jarraituta, jolas bakotxian protagonista izateko personaje bat aukeratu eben antolatzailliak. Gero, personaje horrekin batera bi aktoreren irudixa panel batian jarri eta jokuan parte hartzera animatu ziraneri hainbat kontu proposatu zetsazen, erantzuten ebenaren arabera zelako pentsakerak zittuen jakitteko asmuarekin. Eibarren ezeze jolas modura planteautako esperimentu Gasteizen eta Getxon be egin eben. Jendiak zelan erantzun eban ikusteko interesik euki ezker, interneten eitb.eus orrixan bideua ikusteko aukeria dago.

Egin dabe Urteko Batzarra ...eta kitto!-ko bazkidiak

Urteko Batzar Nagusixa egin eban aurreko asteko eguenian ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Urkizuko bere lokalera bertaratu ziran bazkidiakin. Aurreikusittako gai-ordenari jarraituta, 2018. urtiari errepasua eginda hasi eben batzarra Ekaitz Olaizola alkarteko presidentiak, Maider Aranberri idazkarixak eta Ainara Labado alkarteko normalizazio arloko arduradunak. Jarraixan 2019rako egitasmuak, bazkide kuotak eta aurrekontuak aurkeztu zittuen eta, galdera eta iradokizunetarako tartiaren ondoren, zuzendaritza barrixa osatzeko proposamena onartu eben batzarrera juandako bazkidiak. Holan, jarraixan dittuzue zuzendaritza taldia osatzen dabenen izen-abizenak eta bakotxak dakan kargua: Ekaitz Olaizola (Presidentia), Moises Gonzalez (Presidente ordia), Maider Aranberri (Idazkarixa), Marisol Uriarte (Diruzaiña) eta Ana Aizpurua, Leire Alberdi, Julian Fernandez, Gorka Guenaga, Ane Lizarralde, Jon Mardaras, Anartz Mitxelena eta Iraia Muñoa (Bokalak).



Zuhaitz Eguna ospatuko da etzi

Udaleko Ingurumen saillak, Eibarko Klub Deportiboko Mendi Talde-
kuekin eta Debegesarekin batera Zuhaitz Eguna antolatu dau aurten
be, herritarrek ingurumenaren gainian konzientziatzeko asmuarekin eta,
horrekin batera, gure basuak bizitza luzia izan deitzen laguntzeko. Hori da
la eta, domekan hemengo 40 zuhaitz (lizarrak, haritzak, gorostixak eta ur-
kixak) landatuko dittue Eztiagan, Iturburu ikastolaren parian dagan uda-
laren partzela batian. Parte hartzera animatzen diranak goizeko 09:30xe-
tan Eibarko Klub Deportibuan alkartuko dira, hortik abiatuta Iturbururai-
ño oiñez igotzeko (1,5 km). Edozelan be, oiñez igo barik be, nahi dabe-
nak ikastola parian taldiarekin bat egin leike, 10:30xetarako hara juanda
zuzenian. Ordu horretan hasiko da preparau daben taillarra eta jarraixan
zuhaitzak landatziari ekingo detse. Eguardirako landaketa amaittuta
egongo dala kalkulau dabe: hamaiketakua 12:00xak aldera egin eta, on-
doren, 13:00ak aldera bueltarako bidia hartuko dabe, Eibarreraiño.



Terrorismo klase guztien kontrako manifestaziñua

Zeelanda Berrian egindako atentauaren harira, gerta-
tutakua gaitsezteko manifestaziñua egin zan domeka
illuntzian Eibarren. Pakiaren eta bizitzaren aldeko mobili-
zaziñuak 200 bat lagun, gehixenak musulmanak, alkartu
zittuan. Untzagan hasi eta amaittu zan manifestaziñuan
parte hartu ebenak herriko kaliak ziherkatu zittuen, "ter-
rorismo guztien kontra" daguazela azaltzeko.

Alberto Parejak segiduko dau Eibarko ONCEren zuzendarixa izaten



Martxuaren hasieran ezagutzera emon
ebenez, Eibarko ONCEren Agentziako zu-
zendaritza karguan Alberto Parejak jarrai-
ttuko dau. Horrekin batera, abenduan egin zi-
ttuen hauteskundien emaitzen arabera, Ra-
fael Ledesma izango da ONCE Euskadiko
Lurralde Kontseilluko Presidente barrixa eta
Juan Carlos Anduezak, barriz, lurralde or-
dezkarri karguan segitzeko berretsi dabe.
Emon dittuen datuen arabera, 2018xan ON-
CEk %3,47 areagotu dittu joku-salmentak
Euskadin eta 147 afiliatu barri batu jakoz.



Egogaino bihargiñak manifestaziñua deittu dabe bixarko

Egogain Gerontologia Zentruko bihargiñak da-
tozen egunotarako mobilizaziñuak iragarri dit-
tue Eibarren, "datorren eguenian billeria egingo
dogu eta gure nagusixak merezi daben arretaren
eta gure lan baldintzen alde burruka egitten segi-
duko dogula ikusi deixen". Asmo horrekin, bixar
arratsaldian, 19:15etan Untzagatik manifestazi-
ñua abiatuko da eta herritar guztiak euren burru-
karekin bat egittera animau nahi dittue.



EH Bilduren alkategaixa aurkeztu eben barixakuan

Aurreko barixakuan Eibarko Bizikleta Plazan egin-
dako ekitaldixan aurkeztu eban Eibarko EH Bilduk
Gorka Errasti bere alkategaixa. Diputaziñorako hau-
tagaixa dan Juan Karlos Izagirrearekin batera, Leire
Narbaizak gidatu eban solasaldixa egin eban Errastik,
Eibarrerako dittuan ideiak eta proiektuak han batuta-
ko jendiari azalduta. Bestiak beste, eurena "Eibarren
aldaketarako dagan alternatiba bakarra" dala eta he-
rrixa hobetzeko biharrian jarduteko prest daguazela
esan eban.

EGITARAUA

MARTXOAK 22

11:00: INAUGURAZIO EKITALDIA. Parte-hartzaileak: Miguel de los Toyos alkatea, Idoia Sarasketa (Gizartekintzako zinegotzia), Eva Perez de Albeniz (Adindu Gerontologia Zerbitzuak), Felix Elkoroiribe (Bizitu Jubilatu eta Pentsionisten Koordinakundeko eta Untzagako presidentea), Antonio Herrero (Ipuruako jubilatu-etxeko presidentea), Daniel Conde (Beheko Tokia jubilatu-etxeko presidentea) eta Manuel Gonzalez (Urkiko jubilatu-etxeko presidentea). Jarraian, Untzagako Abesbatzaren emanaldia eta piskolabisa. Udalbatza aretoan.

19:30: "Erretratu historikoak", Einer Rodriguezen **ARGAZKI ERAKUSKETAREN** inaugurazioa. Untzagako jubilatu-etxean.

MARTXOAK 25

18:30: "Prozesu kognitiboak hirugarren adinean" HITZALDIA, Javier Ruiz neurologoaren eskutik. Untzagako jubilatu-etxean.

MARTXOAK 26

Iruñeara **TXANGOA**, han bisita gidatua egiteko. Irteera 08:30ean Egogain, Bidebarrieta eta Azitaingo autobus geltokietatik. Izen-ematea martxoaren 21a arte, jubilatu-etxeetan. 27 euro.

MARTXOAK 28

18:30: "Aisialdia nola kudeatu" HITZALDIA, Adinduko Eva Perez de Albenizen eskutik. Ipuruako jubilatu-etxean.

APIRILAK 1

18:00: "Kontsumoa: irtenbideak arazoan aurrean" HITZALDIA, Jesus Alconero KIUB- Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoko arduradunaren eskutik. Beheko Tokia jubilatu-etxean.

APIRILAK 2

12:00: TOKA ETA IGEL-TOKA-TXAPELKETA. Ipuruako jubilatu-etxean.
17:00: MAHAI-JOKOEN TXAPELKETA: tute, mus eta briska. Ipuruako jubilatu-etxean.

APIRILAK 3

16:00: TXOKOLATE-JANA ETA KANTUAK, Kaleetan Kantuz taldekoekin. San Andres zaharren egoitzan.

APIRILAK 4

Aixolara **IBILDIA**, Juan Luis Muguerzaren oroimenez. Irteera Egogainetik (autobus geltokitik), Bidebarrieta eta Azitainetik, 11:00etan. Izen-ematea apirilaren 2ra arte, jubilatu-etxeetan. Prezioa: 8 euro.

APIRILAK 5

Hamabostaldiaren **AMAIERA ARRATEN MEZA**, 12.30ean, lau jubilatu-etxeetako eta Biztu elkarteko hildakoen alde. Irteera: 11:30ean Egogainetik (autobus geltokitik), Bidebarrieta eta Azitainetik. **BAZKARIA** Kantabria jatetxean. Izen-ematea apirilaren 3ra arte, jubilatu-etxeetan. 18 euro.



NAGUSIEN HAMABOSTALDIAK

aisialdiaz gozatzera gonbidatu nahi ditu jubilatu guztiak

Martxoaren 22tik apirilaren 5era bitartean garatuko den Pertsona Nagusien XXVI. Hamabostaldiaren aurkezpena egin zuten eguazten goizean udaletxean. Biztu Jubilatu eta Pentsiodunen Koordinakundek eta herriko jubilatu-etxeek (Ipurua, Urki, Beheko Tokia eta Untzaga) Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatatu duten hamabostaldia datorren barixakuan hasiko da eta, urtero lez, horren harira egitarau biribila prestatu dute irteera, hitzaldi eta beste-lako jarduerekin. Antolatzailleek herriko jubilatu guztiak parte hartzera animatu nahi dituzte, *"batzuetan zaila izaten da-eta"*.

Aurten hamabostaldia "Nagusiak denbora libreaz gozaten!" goiburua izango du eta, aurkezpenean esandakoaren arabera, *"hamabostaldia jubilatu etxeetan egiten diren jarduerak eta denbora librea betetzeko dauden aukerak ezagutzera emateko"* baliatu nahi dute. Eibarren lau jubilatu-etxe daude (Ipuruakoa, Urkikoa, Beheko Tokia eta Untzagakoa) eta denen artean ia 3.000 bazkide

biltzen dituzte, *"Eibarren 65 urtetik gora daudenen erdia, gutxi gorabehera"*.

Datorren astean, barixakuan ekingo zaio Pertsona Nagusien XXVI. Hamabostaldiari, 11:00etan udaletxean, Udalbatza aretoan egingo duten ekitaldiarekin. Bertan izango dira Miguel de los Toyos alkatea, Idoia Sarasketa (Gizartekintzako zinegotzia), Eva Perez de Albeniz (Adindu Gerontologia Zerbitzuak), Felix Elkoroiribe (Biztu Jubilatu eta Pentsionisten Koordinakundeko eta Untzagako presidentea), Antonio Herrero (Ipuruako jubilatu-etxeko presidentea), Daniel Conde (Beheko Tokia jubilatu-etxeko presidentea) eta Manuel Gonzalez (Urkiko jubilatu-etxeko presidentea). Jarraian, Untzagako Abesbatzak hainbat abesti eskainiko ditu eta, ondoren, piskolabisa emango zaie bertaratzen direnei. Egun horretan bertan, "Erretratu historikoak", Einer Rodriguezen argazki erakusketa inauguratuko dute Untzagako jubilatuaren egoitzan, 19:30ean. Erakusketa apirilaren 17ra arte egongo da ikusgai.


V. G L D A

LEHIAKETA
EIBARREN

martxoak
27 - 28 - 29
eguztena - eguena - barixakua



AKARA
Untzaga 4



AMESTI
Ziriako Agirre 2



AMETSA
T. Etxebarria 2



ARKUPE
Isasi 2



ASTELENA
Estaziño 7



BACOLEKU
Urkizu 11



BAISI
Urkizu 11



BARATZE
Bidebarrieta 39



BIRJIÑAPE
T. Etxebarria 16



BOULEVARD
Bista Eder 5




CEPA
Urki 29



DOS DE MAYO
T. Etxebarria 19



GASTROGILDA
Julian Etxebarria 4



GURIDI
Untzaga 3




ITURRI
Ibarkurutze z/g



**KON KON
TENT TENT**
KONTENT
Ego Gain 6



KOSKOR
Calbeton 6




KULTU
Zuloagatarren 3



O' JAYS
Untzaga 8



PAULANER
San Andres 3



SLOW
Ego Gain 10



SU BEROA
Bista Eder 11

SARI BI:

Herritarren saria: **150€**
Tabernetan bozkatzeko kutxak
eta orriak egongo dira.

Epaimahaiaren saria: **150€**

EPAI-MAHAIKIDEAK:
Mireia Alonso - Josu Mugerza -
Iñigo Kortabitarte

Bozketan parte hartzen dutenen artean
ASTEBURUKO EGONALDIA zozketatuko da
BI LAGUNENTZAT.

Animatu zaitetz eta parte hartu!!!



Debako Arte Eskolak ateak itxi zituen ekainean 35 urteren ondoren, baina 1969an Jorge Oteizak piztutako sugarrak bizirik jarraitzen du eta suspertzen saiatuko da Arte Eskola Bizirik taldea. Juan Luis Baroja Collet artista eibartarra eskolari lotuta egon da 35 urte hauetan eta eskolaren itxiera pena handiz bizi duen arren, gogotsu dago bihar hasiko den aro berriarekin. Goizeko 11:30etik aurrera 'Debako Arte Eskola atzo eta bihar' izeneko jardunaldia egingo da Debako Arregi Jauregiko Ispiluen gelan, proiektu berriaren inguruan gogoeta egiteko egitasmoa.

JUAN LUIS BAROJA COLLET (artista):


“Debako Arte Eskolaren oinarri berriak ezarri nahi ditugu”

- Zer gertatu da Debako Arte Eskolarekin?

Logika kontua da. Eskola orain dela 35 urte hasi zen eta gizartea, formakuntza, ikasleak, tituluak... aldatu egin dira. Ez da eskola ofiziala, beraz, gero eta zailagoa izan da jendea erakartzea artisau-ofizio bat ikastera. Debako Arte Eskola Debako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzei esker egon da martxan, erdibana. Udalak lehen diru gutxiago jartzen zuen, eta diru-laguntzen erdia ematea asko kostatzen zitzaion, baina Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzen erdia kendu zigunetik Udalak dio ezin duela eskola mantendu. Gu ez gara horretaz kexatzen, baina bai gu aintzat ez hartzeaz. Eusko Jaurlaritzak eta Udalak bilerak egin izan dituzte eta normalean ordezkari-tza izan dugu bilera horietan,

baina gutxienez hiru bileratara ez gintuzten gonbidatu eta ez dakigu zertaz egin zuten berrak. Azkenean, alde bakarreko erabakia hartu eta eskola itxi-ko zutela esan ziguten. Pentsatzen dut gauzak ez direla horrela egiten. Alde guztiak bildu, arazoak mahai gainean jarri, eztabaidatu eta konponbideak bilatu behar zirela uste dut. Hori egin eta gero konponbiderik ez badago, eskola itxi, baina ezin da horrela egin, boteprontoan. Horrek mindu gaitu gehien.

“Ez gaude eskolaren historia bapatean itzaltzeko eta hiltzen lagatzeko prest”



- Eskola itxita dago, baina aurretik ez zenuten egoerari buelta emateko aukerarik eduki?

Tira, orain eskola itxita dago eta uste dugu berriz zabaltzeko ez duela zentzurik. Zikloa amaitu da. Jorge Oteiza, Deba eta Arte Eskolaren kontzeptuak elkarrekin mantentzea gustatuko litzaiguke. Ezin gara berriro hutsetik hasi. Eskola beste modu batean planteatu beharko dugu agian, gaur egunera egokitua, eta kontestu honetan lagun talde bat bildu gara Arte Eskola Bizirik taldea sortzeko.

- Hain zuzen ere jardunaldi bat egingo duzue bihar. Zertan datza?

Eskolaren itxiera salatuko dugu, baina batez ere eskola zer izan den ikusiko dugu, urte hauetan egindakoa erreparasatu-ko dugu diapositiben bitartez

eta gaur egun egiten ari garen gauzei buruzko hitzaldiak eskainiko ditugu. Eskolak aurrera jarraitzeko behar dituen oinarriak ezarri nahi ditugu, baina ez eskola orain arte ulertu dugun moduan, baizik eta proiektu berri bat. Proiektua Udalaren borondatearen arabera joango da aurrera, edo ez, baina badago eskolaren jarraipena defendatu nahi duen lagun talde bat. Biharko jardunaldiaren ondoren bigarren jardunaldi bat etortzea gustatuko litzaiguke, ondoren hirugarren bat antolatzea, eta egunen batean proiektu bat (oraindik ez dakigu zein) gauzatzeko lan-talde bat eratzea. Berrak egiten, beharrak aztertzen, egin daitekeena ikusten... zerbait irtengo da. Hori bai, pentsatzen dugu Jorge Oteiza eta harriarekin zerikusia izan behar duela. Deban harrobiz inguraturata bizi gara eta harri hauekin ka-

tedraleak, zubiak eta beste hainbat gauza eraiki dira. Tradizio horri eutsi egin behar zaio. Kontu hori Geoparkearekin eta kobazuloekin lotu nahi dugu, esplotatu barik dagoen ondarea delako.

- Beraz, eskolaren itxierarekin atsekabetuta egon beharrean, zerbait berria hasiko duzue bihar?

Itxierak ez dauka atzera bueltarik, baina ez gaude eskolaren historia bapatean itzaltzeko eta hiltzen uzteko prest. Eskualdeari zerbait interesgarria eskaintzen jarraitu nahi dugu.

- Eskolaren sugarra piztuta mantentzeko lana du Arte Eskola Bizirik taldeak?

Talde txikia da eta biharko jardunaldia antolatzea da lehendabiziko pausoa. Esan bezala, aurrera begira jardunaldi gehiago antolatzeko asmoa daukagu eta espero dugu agente sozial eta kultural gehiago batzea, Debakoak edo kanpokoak.

- Arte Eskola Deban dago, baina eskualdearentzat ere garrantzitsua da?

Debabarrean eta Deba-goienan eragin handia izan du, eta Iparraldetik, Txiletik, Kanariar Uharteetatik eta Espainiako beste hainbat tokitatik etorritako jendea jaso dugu eskolan. Zentro irekia izan da. Garatu ditugun teknikak lantzeko eta horren inguruan ofizio bat ikasteko, tailerren ordu asko pasa behar zituzten ikasleek.

- Jorge Oteiza aipatu duzu lehen. Nola sortu zen Debako Arte Eskola?

Jorge Oteizak sortu zuen eskola eta sasoi hartan Luis Mari Illarramendi debarra izan zen kultur elkartearen kudeatzailea. Eskola itxi egin behar izan zuten eta Illarramendi gogo txarrez geratu zen. Bere buruari zin egin zion zerbait egin behar zuela Debabarreneko artista eta artisautzat artisautailerrak existitzen jarraitzeko. Askok borrokatu zuen eta, dirua jarri ondoren, eskola martxan

jarri zuen. Harrera ona izan zuen, gauza gehiago egiten hasi zen eta Eduardo Chillida, Nestor Basterretxea, Julio Caro Baroja, Anton Artamendi eta kulturako sektoreko beste agente batzuen babesa jaso

zuen. 1983an Debako etxebizitza huts bat hartu eta eskola sortu zuen, gaur egunera arte.

- Nolako eskola izan da?

Zaila da horretaz berba egitea. Ez da eskola ofiziala izan eta 16 urtetik gorako ikasleak

hartu ditu. Denetariko jendea jaso dugu. Eskola txikia izanik, hezkuntza pertsonalizatu dugu. Ikaslearekin kontaktu zuzena edukitzeko eta egin nahi duena jakiteko aukera izan dugu, eta faktore horien arabera hezkuntza-jokabide pertsonalizatua ezartzeko aukera izan dugu. Ofizioa ikasteaz gain, gozatzeko. Bestetik, eskolak gizartean eduki duen eraginari dagokionez, monitoreak bihurtu diren ikasleak izan ditugu (zeramikan batez ere), irteera profesional gehien eduki dutenak harria lantzen dutenak izan dira (artistak, beste pertsona batzuentzat lan egiten duten artisauak, fatxadak berreskuratzen dutenak...), egurrarekin lan egiten dutenak egon dira eta badaude amore eman duten batzuk ere, mundu hau ez delako batere erraza.

- Eskolak ez baditu ateak berri irekitzen, zeintzuk izango lirateke ondorioak?

Larria izango litzateke. Fundizioa ez dut aipatu, baina oso garrantzitsua da, gauza asko indartzen dituelako. Gaur egun estatu espainiarrean ezin daiteke inon urtzen ikasi. Hemen Alfa Arte daukagu gotorleku moduan eta eskolatik pasa diren lau-bost lagun daude bertan lanean. Bestetik, harriari dagokionez, ez dago 3 edo 4 tonelada pisatzen duten piezekin lan egin duen beste tailerrik edo profesionalik, eta hori da larriena. Kanpotik jende asko etorri da hona espresuki bolumen handia duten harriekin lan egitera.

- Eskola eredu baten amaiera ere izango litzateke?

Hiru urtez tailer batean ordu asko pasatzen hezitzea eskaintzen zuen Debako Arte Eskolak eta eredu hori desageritzen ari da, Deban eta edonon. Arte Ederrak ikasi duten lagun asko guregana etorri dira materiarekin konektatzeko. Inoiz ez gara arte eskola bat izan, profesionalak artean hezitzeko eskola baizik.

“Inoiz ez gara arte eskola bat izan, profesionalak artean heitzeko eskola baizik”



Gehienetan mutilek zakila dute eta neskek bulba. Baina kasu batzuetan mutila zela uste genuena (zakila zuelako) neska dela jakiten dugu (hala dela adierazi duelako), eta alderantziz. Haur-transexualitateak neska eta mutil horien errealitatea izendatzen du. Transexualitate egoeran dauden NAIZEN haur eta gazteen familien elkarteko kidea da Bea Sever. Lehen Chrysallis Euskal Herria bezala ezagutzen genuen elkarteak orain dela gutxi ibilbide eta izen berria hartu du. Aldaketaren arrazoiak eta elkarte berriaren erronka nagusiei buruz jardun dugu Bearekin.



Bea Sever algortarra ume transexual baten ama eta NAIZEN elkarteko harrera arduraduna da. Argazkia: Hodei Torres - Hiruka CC BY-SA

BEA SEVER (Adingabe Transexualen Familien Elkarteko kidea):

“Haur eta gazte transexualei bidea errazagoa egin nahi diegu”

- Lehen Chrysallis eta orain Naizen. Zer dela-eta aldaketa?

Chrysallis Euskal Herria 6 familiarekin sortu zen 2015ean, estatu mailako elkar-tearen delegaritzaz bezala. Hiru urte eta erdiko ibilbidea eta gero 100 familia gara eta konturatu gara egunerokoan ez zela eraginkorra Madrilerara begira egotea. Azken finean, lana hemengo erakundeekin egiten dugu eta familien arteko topaketak egiten direnean ere hemen egiten dira. Beraz, ibilbide berriari ekin diogu NAIZEN izenarekin, baina helburu eta irizpide berberekin. Gure seme-alaben antzera guk ere transitoa egin dugu, itxura eta izena aldatuz, baina funtsean berdinak izanik.

- Zeintzuk dira une honetan dituzuen erronka nagusiak?

2016an Nafarroan lortu genuen legeari esker gure eskaera gehienek erantzuna izan zuten, baina EAEn 2012ko legea daukagu oraindik, bere garaian aintzindari izan zena baina gaur egun zaharkituta dagoena. Nafarroako maila berean jartzeko 2012ko legea erreformatu nahi dugu. Orain dela urtebete lege zirriborro bar aurkeztu genuen Lege Biltzarrean eta ordutik mugimendu gutxi egon da. Orain espero dugu erantzun egokia izatea politikoen aldetik eta lege hori moldatu ahal izatea.

- Zergatik gelditu da zaharkitua hemengo legea?

Alde batetik patologizantea delako. Psikiatraren txosten bat behar duzu zure identitatea adierazteko. Beraz, oinarritik aldatu beharreko gauza da. Bestetik, lege horren bitartez osasun zerbitzu hobea lortu nahi dugu. Une honetan psikiatriatik pasatu behar dute tratamendu endokrinologikoak jaso nahi dituztenek. Nafarroan, berriz, Transbide zerbitzuaren bitartez –Kataluniako Transit-en eredua jarraituz– lehenbiziko harrera hezitzaile batek egiten du, eta hortik aurrera protokolo zurrin bat eduki beharrean, pertsona horri entzunez, pertsona horrek adierazten du zer behar daukan, ebakuntza bat, hormonazioa, babes psikologikoa... Batzuetan, nerabeek transitoa pubertaroa eta gero egiten dutenean psikologoek beharra izaten dute. Baina psikologo enpatiko bat behar da, formazio sexologiko sakona duena. Horrelako zerbitzu bat legearen aldaketarekin lortuko genuke. Horrez gain, formazio integrala sartu nahiko genuke legean, hau da, ikastetxeetan

“Orain dela oso gutxira arte adin txikiko transexualitatea ezin zitekeen ezta pentsatu ere”

heziketa ematea irakasleei eta bertako langile guztiei, horrelako kasu bat gertatzen denean prestatuta egoteko. Azken finean, ikerketa batzuen arabera, 1.000 jaiotzatik batean pertsonaren sexua ez da bat etorriko jaiotzan esleituko zaionarekin. Beraz, ikastetxe guztietan agertuko da kasuren bat uneren batean. Gaur egun ez daude prestatuta.

- Hori alde legalari dagokionez. Eta bestela?

Haurtzaroan identitatea ukatu zitzaizkion heldu transexualen %41 saiatu da bere buruaz beste egiten. Eta familiekin eta ikastetxeetan lanean hasi ginetetik, berriz, belaunaldi berriak oso pozik eta zoriontsu bizi dira. Ondarruko Ekaireren heriotzarekin konturatu ginen bi belaunaldi horien artean nerabeak genituela, eta familia eta ikastetxeaz gain beste gauza batzuk ere sartzen direla jokoan adin horretan: *nire berdinak, gorputzaren aldaketa* eta *maitasuna*. Ekai hil zenean elkarte moduan huts egin genuela ohartu ginen. Hortik aurrera, nerabeentzako ekintzak egiten hasi ginen. Hilabetean behin ekitzaren bat egiten ahal gintzen gara. Nahi duenak badauka aukera bere egoera berdinean dauden gazteekin egoteko, nahiz eta bakoitzak bere lagun kuadrila izan. Esparru segurua sortu nahi genituen, eta euren arteko babes-sarea ere bai. Gaizki daudenak ondo dau-

denekin hitz egiteko edo euren artean zailantzak argitzeko. Tailerrak ematen dizkiegu ligoteoarean iguruan, zer esan eta noiz esan, ez dagoela okerreko gorputzik, denak direla zoragarriak... Hormonazioari buruzko informazioa ematen diegu. Gure ondorioak dira oso ondo dauden nerabe batzuk daudela, baina badirela hain ondo ez daudenak ere. Bidea errezagoa egin nahi diegu, denak ondo egon daitezzen.



Elkarteari eta gaiari buruzko informazioa www.naizen.eus webgunean dago

“Pubertatean neskek ez dute ondo eramaten bizarra izatea edo ahotsa aldatzea eta, mutilak badira, ez dute ondo bizitzen bularrak haztea”

- Beraz, nerabe horiek izan duten babes falta leundu nahi duzue...

Ez dute babesa izan ez dutelako adierazi, edo adierazi baldin badute ez dituztelako ulertu. Orain dela, oso gutxira arte adin txikikoen transexualitatea ezin zitekeen ezta pentsatu ere. Beste batzuetan nerabeek agian ez zuten ondo ulertzen eta, beraz, ezin zuten adierazi “mutila naizi” edo “neska naiz”. Desberdin sentitzen ziren, baina ez zekiten hau existitzen zenik. Hori ez da inoren errua, baina egia da batzuetan euren identitatea oinarri ez sendoetan eraiki dituztela eta norbere buruaren ez ulertze horrek ondorio txarrak ekartzen dituela. Euren gorputza eta burua maitatzen ikasi behar dute. Gainera, adin hori berez da konplikatu. “Nor naiz”, “nor izan nahi dut” eta “nor espero dute besteek ni izatea” nahasten da. Adin horretan berez sortzen dira hiru galdera horien arteko kontrasenak, baina horrelako neska-multilen artean gehiago. Ez dago transexual izateko eredu bakar bat. Nortasunaren araberakoa ere bada. Euren burua maitatzeko baliabideak ematen saiatzen gara.

- Nolako izaten da familien erantzuna?

Denetarik dago. Gaur egun familiak orokorrean nahiko informatuta daude, eta haurrak adierazten duenean arazorik barik egiten dute aurrera. Transexualitatea kultura guztietan eta garai guztietan existitu da, baina ume hauek direna izatea baimentzen zaien lehen belaunaldia dira. Eta gauza mordoa ari gara ikasten. Ezkerrarekin idazten den ume batek idazketa prozesu berdina izango duen bezala, pertsona

hauen identitatearen eraikuntza eta beste prozesu guztiak berdinak dira. Ukazioak ekartzen ditu bestelako arazoak.

- Osasun zerbitzuak aipatu dituzu lehen. Nolako aukerak dituzte?

Txikiak diren bitartean ez dute ezer behar. Baina pubertarora iristen direnean, neskak badira ez dute ondo eramaten bizarra izatea edo ahotsa aldatzea, eta mutilak badira ez dute ondo bizitzen bereziki bularrak haztea. Horregatik normalean blokeatzaileak nahi izaten dituzte. Pubertaro hori eten egiteko eta ume gorputza mantentzeko aukera ematen dute blokeatzaileek. Eta 15 urte inguru dituztenean aukera ematen diete hormonazioa hartzeko. Neskek estrogenoak hartzen dituzte eta mutilek testosterona. Horiekin garatuko zaizkie gogoko dituzten ezaugarri horiek. Dena dela, berandu adierazi dutenak ez dira blokeatzaileetara iritsiko eta bakarrik hormonaziorako aukera izango dute. Errealitatea da, gure elkartearen behintzat, gehienek hormonazioa nahi izan dutela. Gero, 18 urterekin, ebakuntza egiteko aukera ere badago. Batzuk ondo eramaten dute genitalen kontua, eta beste batzuk ez. Egia da txikienean artean hobeto bizi dituztela. Pubertaroan edo nerabezaroan transitoa egin dutenen artean denetarik dago. Argi dago transitoa ahalik eta lehenago egin, orduan eta hobeto bizi dituztela euren genitalak.

- Beraz, ebakuntza beste aukera bat da, nahiz eta beti ez den horretara iristen.

Ez badira blokeatzaileetara heldu, mutil gehienek bularrak kendu nahi izaten dituzte. Batzuetan ez dute itxaroten 18 urte izan arte. Dirua badaukate pribatutik 16 urterekin egin dezakete. Azken finean mutila izatea eta bularrak izatea ez da erraza. Besteen begirada, gizartearen begirada, oso zorrotza da. Nesken kasuan txartoen daramatena bizarra da. Beste belaunaldietan, horrelako aukerarik ez zituztenean,

emakume transexualen langabezi tasa ia %100koa zen. Errealitatea da gizartea oso gogorra izango dela zurekin. Danak gara oso modernoak eta guk badaezpada ile zuriak tintatzen ditugu.

“Besteen begirada, gizartearen begirada, oso zorrotza da”

- Zer deitzen zaio transitoa?

Transitoa gertatzen da gizartean zu zaren bezala azaltzen zarenean. Nire semearen kasuan transitoak ez zuen inolako aldaketarik ekarri: ez zuen izena aldatu, izen euskaldun nahiko anbiguoak duelako. Itxura ia ez zuen aldatu, ordurako ile motza eta mutilen arropa zeramalako. Guk ez dugu aldatu berari hitzegiteko modua, maskulinoa edo femeninoa, beti euskaraz egiten dugulako. Aldatu den gauza bakarra gure begirada da. Horregatik askotan esaten dugu benetan transitoa egiten dugunok besteok garela. Beste kasu batzuetan transitoak aldaketa handia ekartzen du, izen aldaketa, itxura aldaketa bat... Beraz, transitoa oso pertsonala da, bakoitzaren araberakoa.

- Elkartearen barruan nolako familiak zaudete?

Familien artean denetarik daukagu, anitzak gara, oso desberdinak zentzu guztietan. Eta bat egiten dugu gure haurrentzako onena nahi dugulako. Batzuei gehiago kostatzen zaie onartzea, baina azkenean denok gaude hor, eta beti esaten dugu gure eginbeharra haurren atzean joatea dela, urrats bat atzerago beti, euren beharrei erantzunez. Ez dugu egingo eskatzen ez duten ezer, baina frenatu ere ez ditugu egingo. Ezinbestekoa da eurei entzutea, baina benetan entzutea.

Pasaian 2013. urtian trafikiko liskar modura hasi zan arazua, korapillatzen jua ziran hainbat faktore tartian, bi urte eta erdiko kartzela zigorra eta inhabilitaziñua ekarri zetsen **Iker Rokandio** eibartarrari eta Pasaiaiko alkate izan zan Amaia Agirregabiriari. Kartzelara sartzeko zain eguala, 2017xan egin genduan berba Rokandioekin eta, martxuaren 10ian baldintzapeko askatasuna emon detsela jakin dogunian, zelan jua jakon kontatzeko eskatu detsagu.

Aske, baiña baldintzapan

Kartzelako esperientziaren inguruan berba egitteko arazorik ez dakala diño: *“Egixa esan lasaixago egitten dot berba honen gaiñian beste guztiaren inguruan baiño, bestia hain traumatikua izan zan... Kartzelara sartzeko kontuak atzera bueltarik ez zekala ikusitta, hori buruan sartzen jatzunian, ez noia esatera pozik naguala, baiña txarto be ez jata urten, egixa esateko okerrago urten ahal jatan. Amaiari txartuago jua jako, adibidez. Ni Zaballara 2017ko abenduaren 11n aurkeztu nintzan eta ordu-rako Amaiak hiru aste zaroiazan barruan. Azkenian nazka nazka eguan itxoitten, ze ez da bape xamurra, etxera zure billa datozenian baiño zati bat hobia bada, baiña denpora osuan pisu hori dakazu gaiñian, badakizulako sartu egin bihar zarala eta Amaiak, adibidez, nahiko txarto eruan eban hori. Nik ez horrenbeste, ondo aprobetxau neban eta, bestiak beste, Extremadurara jua nintzan. Zaballan sartu nintzanian Gabonak gaiñian eguazen eta batzuk galdetzen zesten ia atzeratzerik ez nekan, baiña gehixago luzatzerik ez eguan, hamar eguneko epia emon zeskuen eta hori bete egin genduan”.*

Epailliak zigorra ezarri zetsenian, kondena nun bete nahi eben aukeratzan laga zetsen eta Rokandiok Zaballa aukeratu eban, bestiak beste kartzela barrixenetakua zalako. Kartzela zelan daguan antolatuta be kontau desku: *“Kartzela modularra da eta, holakuetan, modulo bakoxta mundu bat da eta zure mundua, barriz, zure modulua. 12 modulotik lau hutsik dagoz, beste zortzi modulu bi andrazkuendako dira eta beste sei gizonendako eta, klaro, batetik bestera ezberdintasun haundixak dagoz. Ni lehelen-*



gotik 8. moduluan sartu ninduen. Oso modulu lasaixa da hori, perfil nahiko trankilla dakan jendia dago. Aillegatzen zaranian psikologuak eta ekipo teknikua osatzen dabena zurekin entrebista bat egitten dabe eta, zuk dakazun perfillaren arabera, eta ez dakit ze puntutariño delituaren arabera, proposamen bat egitten detsue modulo batera edo beste batera juateko”.

Berarekin berba egin eta, drogodependentziarik edo beste arazorik ez zekala ikusitta, *“errespetuzko modulo”* izenarekin ezagutzen dan horretara jua zan zuzenian: *“Nik uste dot gaur egunian Instituciones Penitenciarias-ek badakala holako figura bat estatu osuan eta kartzela guztietan. Nahiko*

minimuak diran ardura batzuk (guztitan artian saloiak, eskillarak... garbitzia) asumitzen badittuzu, bestiekiko errespetua bada-kazu... horren trukian beste gauza batzuk emoten detsuez. Hasteko bizitza lasaixagua dakazu, zure kidiak be lasaixak izan bihar diralako. Eta, bestela, hori bete ezian, bada-goz pertsona hori modulotik etara eta beste batera eruatia proposatzeko komisiño batzuk. Horrekin batera, hillian ‘bis a bis’ bat gehixago dakazu eta zinera jua ahal giñian... Holan esanda igual ez dabe emoten gauza haundixak, baiña lehen graduan zaguazanian zure modulotik urtetzia, mogidu ahal izatia... oso inportantia da, ze bestela oso txiki geratzen jatzu. Lehen graduan da-

AMAIA IZETA RETOLAZA

I. urteurrena: 2018-III-22

Ama, emazte, lagun ederraren / keinuz beterik bihotzak gure begitan ernegai diran / maitasunezko oroitzak.

ETXEKOAK



guazenak, euren modulotik urtetzeko zailtasun haundixekin... hori beste mundu bat izan bihar dala pentsatzen dot! Horregaittik, urten ahal izatia eta haize freskua hartzia... neretako gozada bat zan! Ahal neban guztietan juaten nintzan zinera, bardin zestan zer emoten eben. Gaiñera hotz haundixa egitten eban ze, astebarruan kalefakziñua ipiñi arren, asteburueta ez eben ixotzen eta jendia arropa morduarekin, eskularruak eta txanua jantzizta juaten zan. Edozelan be, zapatu-domekako goiza pasatzeko aukeria emoten zetsun”.

Baiña errespetuzko moduluan egotiarren zeken eskubide nagusiña modulo barruan mogitzeko zeken erreztasuna zala diño: “Ziegetatik kanpo zaguazen orduetan, goizian sei ordu ziran eta arratsaldian ixa hiru, liburu bat hartzera jua nahi bazenduan modulo barruan mogidu ahal ziñan eta beste modulueta ez dago holakorik. Pentsa egunekeo beste 15 orduak ziegan emoten dittuzula eta gaba be oso luzia egitten da, 8etatik 8etara. Jakiña, pegarik haundixena kartzela batian zaguazela eta handik ezin zarala urten da, baiña bestela neri ez jata txarto jua han”. Diñuaneez, kartzelan “txibateo” eta holako kontuetarako arrisku haundixa daguala sarrittan entzun arren, berak ez dau holakorik somatu: “Seguruenik egongo dira beste modulo batzuetan-eta, baiña nere inguruan eguazenen nere antzerakuak ziran mailla haundi batian”.

Barruan hillebete pasau eta segidan esan zetsen bi hillebetera rebisiñua egitteko proposatuko ebela: “Kasua begiratu eta klasifikau egitten zaittue eta horren arabera erabagitzen dabe, adibidez, 3. gradua emoten detsuen ala ez. Edozelan be, eurak horretarako proposamena egitten dabe, ze erabagixa Madrillen hartzen dabe Instituciones Penitenciarias-ekuak. Otsaillerako ailegauran 3. gradua emoten zetsela ziñuan pape-la. Ez neban espero horren azkar emongo zestenik, egixa esan. Eta 3. graduarekin batera, Martutenera aldatu ninduten. Errenteriako Udalian biharra egitten dotenez, trasladua hasieratik holan eskatuta nekan”.



Iker eta Amaia babesa emoteko hamaika ekitaldi egin ziran Eibarren eta baita kanpuan be.

Etxia eukitziak, lan bat izatiak... horrelak 3. gradua emotia asko errazten dabela pentsatzen dau: “Han eguazenetako askok ez zeken nora jua edo zeñengana jo. Pobriak ziran asko, nik ez dot aberatsik ikusi han”.

Gaiñera, lehen delitua izanda, lehen kondena eta, gaiñera, bere perfillarekin, azkar emon zetsen gradu aldaketia: “Amaiaren kasuan ez zan holan izan, klasifikaziñua 2. graduan sartu eben eta errekurridu bihar izan eban. Azkenian tontamentian 7 hillebete emon bihar izan zittuan barruan”.

Esaten dabenez, 3. graduan emon dittuan 13 hillebete horrek egin jakoz luzienak: “Baldintzapeko askatasuna ointxe lortu dot, zigorraren erdixa bete dozunian eskatu leike-eta. Klaro, jendiak hamen poteatzen ikusten zaittu eta pentsatzen dau libre zaguazela, baiña zuk badakizu ez dala holan, kataia batekin lotuta zaguazela eta barrura bueltau egin bihar zarala. Martutenek dakan ohitura harrigarri batengaittik, gaiñera, lotzen zaittuan kataiak Gipuzkoa abarkatzen dau eta ezin zara hortik kanpora iñora jua. Zorionez gaba batzuk etxian pasatzen dozuz, baiña zuk badakizu beste gabak kar-

tzela barruan pasau bihar dittuzula eta, gaiñera, beste muturra eurak dakela. Edozer pasau ezker, alkoholemia kontrolen batian positibua emoten badozu, adibidez, katairi tira egin eta atzera be barrura zoiazela badakizu. Kartzelan lo egitten nebanian, gaiñera, biharrera kantsautu juaten nintzan askotan, ez dozulako bardin deskantsatzen. Neri oso astunak egin jataz hillebete horrek, patixuan bueltak emoten baiño hobeto zagoz, egixa da, baiña dakazuna sasiaskatasun moduko bat da”.

Baldintzapeko askatasuna lortuta be, guztiz libre izango dan eguna urruti ikusten dau oindiok: “Kodigo penal barrixaren arabera, baldintzapekoa kondena erdixa beteta emon deskue, baiña horrekin dakazun arriskua oindiok kondanaren zati txukun bat betetzeko falta jatzula da. Gure kasuan 15 hillebete, eta tarte horretan arazorik txixena be nahikua da atzera be barrura bidaltzeko”. Baiña etorkizunari ez eze, iragandako eguner be modu positibuan begiratu nahi detse: “Azkenian, esperientzia aberasgarria izan dala pentsatu nahi dot. Nere ziegatik Gorbea eta Anboto ikusten nittuan, eta hori ez dot sekula ahaztuko”.

Kai onera irits zaitzela espero dut
zure arreba
2018ko martxoaren 22a
MUTXI
Juan Ignacio Urresti Vergara
bere heriotzaren lehen urteurrenean.

Ruben Fuentes, eskubaloi atezaina:

“Atezain on batek, erreflexuez gain izaera indartsua ere beharrezkoa du”

Behin baino gehiagotan egokitzen zaio Ruben Fuentesi partidua amaitu eta, jarraian, ia atsedetik hartu gabe, kafetegian lan egitea. Baina badaki gauza biak elkar lotzen, askorik kexatu barik. Arraten egin zuen bidea jubencil mailara arte, gero Bergarara joateko. Orain Eibar Eskubaloira bueltatu da infantil eta kadeteetan Euskadiko selekzioako atezaina izandakoa. Eta pozik dago hartutako erabakiarekin.

**- Zergatik aukeratu zenuen atezain iza-
tea? Kantxan ibiltzea baino nahiago?**

Ez zegoen jende asko atezain izateko gogo; nik, bestalde, gustokoa nuen. Garrantziko postua iruditzen zitzaidan eta taldearen alde atezainak duen eragina maila handikoa iruditzen zait. Erantzukizuna ere ez da nolana hikoia.

**- Zer behar du, nahi eta nahi ez, eskubaloi-
loiko atezain on batek?**

Erreflexu handiak eta izaera indartsua, zure burua askotan bota behar duzulako aurkariaren aurrean. Ziurtasuna emateak garrantzi handia du, batez ere taldekideei begira.

- Ez zara bakarria gaur egungo Somos Eibar Eskubaloian. Beste birekin tartekatzen dituzu minutuak, ezta?

Horrela da; Iñaki Perales eta Mikel Guerra ditut lagun zeregin horretan. Orokorrean, bi partidutan jokatzeko denbora erdi eta denbora erdi, beste bi partidutarako hirugarrena sartzen da... Sistema horri jarraitzen diogu, errotazioak eginez.

**- Zelan ikusten duzu zure burua taldean
lehen urtea izanda?**

Jauzia handia izan da, aurreko denboraldian bi maila beherago jokatzeko bainuen, Bergararekin. Arraten jubencil etapa amaituta, 2. Nazional mailako Bergarara joan nintzen eta han jokatu izan dut azken bost denboralditan. Gainera, maila galdu egin genuen eta, horregatik, Somosekin jokatzeko igarritzen da alde hori joko kalitatean. Hala ere, talde gaztea dugu oso, Haritza bigarren tal-



detik igotakoek ere jokatu dute hainbat partidutan, eta saikapearen erdi aldean gertatzeko asmoz talde asko gaude borrokan.

- Zure postuan zein izan duzu gogoko?

Malumbres Arrateko atezainak asko betetzen ninduen, bere izaera eta jokatzeko erakusten zuen gogoarengatik. Gaur egungo artean, Perez de Vargas edo Bidasoako Ledo bera.

- Defentsa itxia edo zabalaren alde?

Atezainondako hobe itxia bada, babes-tuago sentitzen zarelako. Askotan zabal-

tzea komeni da aurkariaren jokoari aurre egiteko; horrek, aldi berean, aukera gehiago emango dizu geldiketarako egiteko orduan.

- Atezainok baloikadak edo minik hartzeko arriskurik ez duzue?

Arriskurik? Ez. Horretarako prestatu eta entrenatzen gara egunero. Noizbehinka aurpegian ere joko dizute, baina zer egingo dugu ba!

- Non moldatzen zara hobeto ate azpian: goitik ala behetik?

Goitik, goitik... Beheko jaurtiketekin larriago ibiltzen naiz, flexibilitate gutxi daukat-eta.

- Eskubaloia lagatzerakoan, gazteagoekin jarduteko asmorik bai?

Bergaran aukera izan nuen Multi-Kirolean parte hartzeko eta gustora ibili nintzen. Hemendik aurrerakoa, ez dakit.

**- Kamarero ere bazara, Zubi-Gainen. On-
do antolatzen zara gauza biak elkartzeko?**

Batzuetan larriago beste batzuetan baino. Hala eta guztiz ere, ezin naiz kexatu. Astean hiru entrenamendu saio izaten dugu, eta ni bakarrik bitan izaten naiz.

- Noiztik zaude lanean kafetegian?

Bi urte daramatzat dagoeneko. Egun osoz egoten naiz eta, batzuetan ahalegin handia egin behar izaten badut ere jardun biak elkartzeko, neke horri eutsi ahal zaio.

- Barraren beste aldean egoteak zer eskaintzen dizu?

Bezeroekin dugun tratua asetzen nau; hori da lan honek duen onena.

www.etakitto.eus

WEB

**HERRIKO ALBISTEAK
AGENDA**

**KIROL-AGENDA/EMAITZAK
ARGAZKI BILDUMAK
BIDEOAK**

www.etakitto.eus

Debabarreneko Lanbide Heziketa

bertatik bertara ezagutzeko azoka ABIAN

Eguaztenetik barixakura bitartean ABIAN Debabarreneko Lanbide Heziketa Azokaren IV. edizioa hartuko du Armeria Eskolako patioak. Debabarreneko Udalek, Debegesa Garapen Agentziaren bitartez, eta eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxe guztiek antolatu duten azokan Debabarrenean dauden Lanbide Heziketako zortzi ikastetxeetan eskaintzen diren heziketa ziklo eta prestakuntza-ibilbide ezberdinak toki bakarrean, denak elkarrekin erakutsiko dituzte.



Armeria Eskolak, IMH Makina Erramintaren Institutuak, Meka Lanbide Eskolak, Kardala Akuakultura Eskolak, Mutrikuko Institutuak, Uni Eibar-Ermuak, Eibarko Oinarrizko Lanbide Heziketarako Udal Institutuak eta Ermua-Mallabiako Oinarrizko Lanbide Heziketarako Udal Institutuak hartuko dute parte bertatik bertara egiten den azokaren laugarren edizioan eta bakoitzak bere stand propioa izango du, "eskaintzen diren espezialitate eta familia profesionalak zuzenean erakusteko". Izan ere, gure eskualdean 45 bat heziketa ziklo eskaintzen dira, "ar-

profesional ezberdinetara egokitutako eduki teoriko zein praktikoeekin". Hain zuzen ere, Lanbide Heziketak "lan-merkatuan sartzeko oso aukera onak" eskaintzen dituela nabarmendu nahi dute antolatzaileek.

ABIAN azokaren irekiera ekitaldia eguaztenean, 11:00etan izango da. Sarrera doakoa izango da eta goizeko 10:00etatik 14:30era zabalduko dute (eguztean arratsalde ere, 16:00etatik 18:30era). Hiru egunetan, eskualdeko DBHko eta Batxilergoko 700 ikasle baino gehiago igaroko dira bertatik, baina hortik kanpora ere, interesa duen edonork ateak zabalik izango ditu. Bestalde, erakusketaren harira hitzaldiak eta doako tailerrak eskainiko dituzte.

Aurreko barixakuan aurkeztu zituzten azokaren inguruko guztiak Ipuruan, Eibar Kirol Elkartearen instalazioetan Mikel Larrañaga SD Eibar Fundazioko presidenteordeak, Juan Carlos Abascal



IV. Lanbide Heziketa Azoka 2019
Feria de Formación Profesional
#ABIAN

EGITARRAUA

Eguaztena 27

11:00: Inaugurazio ekitaldia eta irekiera hitzaldiak. Azokara bisita, erakundeetako ordezkariekin.

11:30: "STEM arloko ikasketen eta lanbideen inguruko Debabarreneko gazteen pertzepzioa" ikerketaren emaitzak eta ondorioak aurkezteko hitzaldia.

Eguena 28

11:00 / 12:00: "Enplegura bideratutako profesionaltasun ziurtagiriak" jardunaldia (Meka).

11:00 / 12:00: Saio informatiboa: HAZILAN 6. deialdia (Debegesa).

12:00 / 13:00: "Enplegura bilatzeko bide berriak" tailerra (Debegesa).

16:00 / 17:00: "Enplegura bilatzeko bide berriak" tailerra (Debegesa).

Barixakua 29

10:00 / 11:00: Debabarreneko Lanbide Heziketa, ikastetxeetako orientatzaileei zuzenduta.

11:00 / 12:00: "Nola sortu zure negozio-idea propioa?" ekintzailletza tailerra (Debegesa).

Ermuko alkateak eta Kontxi Arana Meka Lanbide Eskolako Ikasketa-buruak. Ekitaldian, besteak beste, "Lanbide Heziketaren onurak ezagutzera emateko ABIAN bezalako topaketen garrantzia" azpimarratu zuten eta, horrekin batera, heziketa ziklo "maskulinizatueta" nesken parte-hartzea sustatzeko premia dagoela ere aipatu zuten. Esandakoaren arabera, espezialitate zientifiko-teknikoetan emakumeen presentzia oso txikia da oraindik, "laneratzemaita altua duten ikasketak" izan arren. Ermuko alkateak, eskualdeko Udal guztien izenean, erakunde eta enpresa laguntzaileei eskerrak eman zizkien: "Enpresek bereziki eskatzen eta baloratzen dituzte Lanbide Heziketan tituludunak eta, alde horretatik, lan-merkatuan sartzeko aukerak gero eta handiagoak dira".

*iratxe gimenez*

Zer egingo dute politikariek guregatik hurrengo lau urte hauetan? Zer egingo dut nik herria hobetzen saiatzeko? Zerrendatxoa idatziko nuke ametsekin.

Denbora-kapsulak

1975. urtean, Nebraskan, denbora-kapsula bat lurperatu zuten. 70. hamarkadako arropa eta 5.000 tramankulu baino gehiago omen daude barruan, kotxe bat barne. 2025. urtean irekitzeko asmoa dago. George Lucas-ek, berea duen Skywalker etxaldean, beste bat lurperatuta du. Ez du ondo gogoratzen zer sartu zuen, baina Star Wars-eko objektu asko daudela ziurtatu du.

Gaur egun dugun bizimodu azkar eta eroarekin, gure pentsamenduak whatsapp baten soinutik bestera joaten diren honetan, nik neuk aurkitu dut nire denbora-kapsula xumea. Kasu gutxi egiten diot baina noizbehinka, lau urterik behin esango nuke, potolotzen hasten da. Kaleko atea pasa eta bere zirrikitutik paperak agertzen hasten direla ikusten dut. Bai, ordua da nire denbora-kapsula zabaltzeko. Patrikatik buzoiko giltza txikia hartu eta atetxoa baztertu ondoren barruko paper guztiak begiratzen ditut.

Hauteskundeak. Paper gorriak, berdeak, urdinak... Aurpegi eza-gunak, ezezagunak, irriparrak. Irakurri nahiko nituzke denak, idatzitako hitzak buruan ondo gordetzeko. Zer egingo dute politikariek guregatik hurrengo lau urte hauetan? Zer egingo dut nik he-

rria hobetzen saiatzeko? Zerrendatxo bat idatzi nahiko nuke egin-behar eta amets guztiekin, eta ondoren, denak batera, politikarientan eta nireak, berriz ere denbora-kapsula horretan sartu. Iku-tu ezin den kajoitxo batean denak laga, eta buzoia beste zatitxo bat libre utzi mezulariek hurrengo lau urte hauetan sortuko diren beste denbora-kapsula txikiak sorpresaz betetzeko.

Lau urteak pasatzerakoan, kajoitxo hau zabalduko zen paper berriei lekua egiteko, beldurrez, lau urtetan neke, poza, etsipen, maitasun... eta beste hainbat emozio pilatzen baitira. Betetako hitzak dituzten paperak bota beharko nituzke, eta bete ez direnak bertan mantendu...edo agian ez.

Korreos-eko langileak aztoratu nahi ez ditudanez, paperak etxera eramango ditut. Eta ondoren bota, inoiz beteko ez ditudan beste amets batzuekin batera. Hala ere, eta idatzi hau irrifar batekin amaitzeko, nire txalo beroena Palentziako Villarramiel herrian herriko buzoietan biletadun sobre marroiak sartzen ari den ezezagunari. Batzuentzat denbora-kapsula dena, beste batzuentzak bankua da. Ea besteren bat Eibarren animatzen den berdina egingen. Asteburu ona izan.

*jon mikel mujika*

Behinola lau urtaroen erreferentziak bizirauteko beharrezkoak ziren, baina gaur egun kontsumo-gida bat besterik ez dira gizartearen gehiengoarentzat

Urtaroak

Mendeak dira, tropikotik urrun bizi garen gizakiok, urtea lau arotan zatitzen dugula. Gure aurreko belaunaldiek, urtaroei begira antolatzen zituzten euren bizitza eta ogibideak. Urtaroei esaten zieten hazia noiz erein, egurra noiz bildu edo uzta noiz jaso.

Gaur egun, supermerkatuan tomateak otsailean eta zerbak abuztuan saltzen dizkiguten honetan, urtaroei gure jardura moldatzen jarraitzen dute. Hori bai, beste era batean. Behinola lau urte sasoiaren erreferentziak bizirauteko beharrezkoak ziren, baina gaur egun kontsumo-gida bat besterik ez dira gizartearen gehiengoarentzat.

Orain Zara-ren iragarki batek ohartarazten digu udazkena iritsi

dela, eta gogorarazten digu bi aldiz bakarrik erabilitako anoraka zaharkituta geratu zaigula. Edo Andoni Aizpuruk lehenengo elurteak iragartzen dituen jakiten digu Jacara asteburu pasa joateko garaia dela. Garaian garaikoa.

Joan den eguaztenean, gaueko hamaitetarako bi minutu falta zirela, hasi zen udaberria. Urtaro guztietan konnotazio positibo gehien dituen. Loraldiaren sasoi. Maitemintzeko garaia. Paisaia berde perfektuak erakutsiko dizkigute. Egunak luzatzen joango dira eta gauak laburtuz. Argiak ilunari irabaziko dio. Mundu liluragarri bat salduko digute.

Saia gaitetzen euren jokoan ez sartzen, eta gogoan izan, argia da itzalak nabarmentzen dituen.

Emakumezkoen II. Eibarko Hiria Sari Nagusia jokatu da domeka goizean

Eibarko Txirrindularitza Elkarteak iaz abiatutako lasterketaren bigarren edizioaz gozatu ahal izango dugu etzi goizean. Bi proba izango dira jokoan, 09:00etan hasiko den kadeteena eta 10:45ean abiatuko den junior, elite, 23 urtetik azpiko eta master mailako txirrindulariak batuko dituen. Lehenengoan 33 kilometro osatuko dituzte, Bergararaino joan eta bueltatzeko. Bigarrenak 78 kilometro izango ditu eta hor ere Bergarara joko dute hasteko, gero Maltzagara bueltatu eta kostalderantz jarraitzeko. Deba, Mutriku eta Ondarroa pasatuta, San Miguel gainera Elgoibarrera jaitziko dira eta handik zuzenean joko du-

te T. Etxebarria kaleko helmugaren bila (12:50 inguruan aurreikusten da helduko direla lehenengoak). Kadeteen proba ere toki berean amaituko da, 10:00ak inguruan. Jasotako laguntzari esker, iaz Euskadiko Koparako baliagarria izan zen probak oraingoan Espainiako Koparako izatea lortu du, apirilaren 7an jokatu den Valenciaga Memorialak gizonetakoetan duen mailaren antzera. Parte-hartzeari dagokionez, estatu osoko eta atzerriko txirrindulariak izango dira irteera puntuan. Iazko eguraldi kaskarra berriro ez errepikatzearekin nahiko ikuskizun eskainiko du goi mailako txirrindulariek hartuko dituen probak.



Eibar Igerixanek lan bikaina egin du Gipuzkoako Neguko txapelketetan

Hamar igerilari izan zituen Eibar Igerixanek Irungo Azken Portu kiroldegian jokatuak Gipuzkoako neguko junior eta absolutu txapelketetan eta horietako bi, Maite Barruetabeña eta Jon Osa,



txapelketako bigarren igerilari onenak izan ziren, maila absolutuan eta juniorretan, hurrenez hurren. Barruetabeña urrea eskuratu zuen 200 librean eta zilarrezko beste hiru domina (400 eta 800 librean eta 100 bizkarrean). Osa urreez jabetu zen 100 eta 400 librean eta 400 estiloetan eta brontzezkoa juniorretan, absolutuetan bereganatutako zilarrezko birekin batera. Nekane Tejedorrek urrea lortu zuen 50 bular eran eta zilarra 100ekoan, biak absolutu mailan. Eta juniorretan, azkenik, Ekhi Zubiaurrek zilarra irabazi zuen 200 bizkarrean, eta Elene Iarabalek brontzea 100eko bizkarrean. Maila indibidualean irabazitakotik kanpo, erreleboetan beste sei dominekin etorri ziren: zilarrezkoak bi eta brontzezkoak beste lau, emakumezkoen probetan eskuratutakoak gehienak.

Lasarteko kiroldegian jokatuak X. Gipuzkoako Neguko Sarian, bestalde, lau izan ziren Eibar Igerixaneko ordezkariak: Malen Albistegik urrea irabazi zuen 100 librean eta zilarra 50 bizkarrean, Ekaitz Lagok urrea 100 estiloetan eta brontzea distantzia bereko librean, eta Iker Uribesalgok urrea 100 bularrean Paula Kapelastegi izan zen laugarren ordezkaria.

Ipuruako gimnastak indartsu urte hasierako lehiaketetan

Euskal Ligako lehenengo fasean jardun izan duten absolutu mailako ipuruako gimnastak maila bikaina erakutsi dute. Horrela, Jennifer Hernandez, Alaitz Aranbarri, Nahia Arguiz, Nahia Gonzalez eta Arrate Barojak osatutako senior boskoteak lehenengo postua eskuratu zuen eta taldekako Espainiako Kopa jokatzeko txartela eskuratu zuen. Junior mailako taldea hirugarren sailkatu zen eta Maddi Teran (sokarekin) eta Lur Aranburu (pelotarekin) onenak izan ziren euren ariketetan. Gasteizko Abetxukon jokatuak



Jubenil eta infantil oinarri taldeak Euskadiko txapelketan.

Euskadiko oinarri txapelketetan, bestalde, Ana Portu, Izaro Altuna, Mainer Diez, Arrate Baskaran eta Ainhoa Bizkarrak osatutako jubencil mailako taldeak Euskadiko txapela jantzi zuen, eta infantil mailakoa hirugarren geratu zen. Talde biek Gualajaran izango dira apirilaren 12an, Espainiako oinarri Kopa jokatzeko.

Aurrekoek gain, oinarri mailako eta federatutako hainbat gimnasta izan ziren Gernikan jokatuak Macarena Milla torneoan, eta hor jubencil oinarrikoek podiumera igo zuten, hirugarren sailkatuta.

13 kidek osatuko dute Eibarko Kirol Mahaia apirilaren 5erako

Aurreko asteko eguenean Portalean egindako bileran onartutakoaren arabera, 2017-27 hamarkadarako gure herriko Kirol Plan Estrategikoa gidatuko duen Mahaia 13 kidek osatuko dute: Kirol Patronatuko bi ordezkari (mahaiko-presidentea eta idazkaria izango direnak), kirol klubetako beste bi, Eibar FT-k eta Klub Deportiboak bana izango dute eta kopuru bera honako erakundeetako bakoitzak: ikastetxeak, gimnasioak, ekitaldi-antolatzaileak, kirolari federatuak, gutxitasunak dituzten pertsonak, Andretxea eta harpidedunak. Proposamenak egiteko epea bihar amaituko da eta emkirola@gmail.com helbidera bidaliko dira. Bestalde, Plan Estrategikoaren barruan bi proiektu sustatzea erabaki zen: alde batetik, kiroldegia berritzea eta, bestetik, igerileku estalia egitea monjei espropiatutako terrenoetan.



Plan Estregikoko bi proiektu sustatuko ditu, hasteko, Kirol Mahaia.

Klub Deportiboko mendizaleek Artzaintza Naturbideari ekingo diote bihar

Subijantik Okinaraino eramango dizkien ia 23 kilometroko ibilbidearekin hasiko dute Artzaintza Naturbidea Ibilaldia Deporrek mendizaleentzako. Aurten zazpi etapa egingo dituzte guztira eta biharko lehenak mila metroko desnibela metatuko du. Arabako Subijana herritik abiatuta, Busto mendia inguratu eta Zaldiarango mendateraino (5,7 km) jarraituko dute. Arrieta mendira segi eta Vitoriako mendatea izango dute zain (11,5 km) eta, Okinara heldu aurretik, Pagogan eta San Kristobal (1.044 metro) gainak zapalduko dituzte. Hemendik hamabost egunera, apirilaren lehenengo asteburuan, hilaren 6an, Artzaintza Naturbideako bigarren etapa egingo dute, Okinatik Urturiraino, tartean Izki gaina eginez. Bihar 07:00etan irtengo dute Ego Gaintetik. Informazio gehiagorako, Deporrek bulegoetan, martitzen eta eguenean (19:30-20:30).



"Biclick" (Aretxabaleta)

Bihar hasiko da 50. Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketa

Elgoibarko San Pedroko bolatokiak hartuko du bihar, 17:00etatik aurrera, txapelketaren lehenengo jardunaldia. Antolatzaileen esanetan, "ordubete lehenagotik bola probatzeko aukera izango da". Jaurtialdi bakoitzean honako sariak egongo dira: 65 euro, 50, 35, 20 eta 10 lehenengo bost sailkatuentzat eta, horrez gain, "Eibarko Solera Eibarresaren eskutik, lehelengo sailkatuak txanpan botila bat jasoko du eta seigarrenak kiantza botila bat". Bestalde, Aretxabaletan jokaturako jaurtialdi berezian Asola Berriko Bittor Astigarraga izan zen onena, sei txirlorik, Elgetako Sebastian Aranzabal eta Sergio Rodriguez eibartarraren aurretik. 43 bolarik hartu zuten parte hor.

Eibar Energia Hiriak 17 txirrindulari izango ditu denboraldi berrian

Laboral Kutxa eta Grupo Eulenekin batera, gure herriko txirrindularien taldea da afizionatuen mailan Gipuzkoan dagoen hirugarrena. Denboraldi berrirako 17 txirrindularirekin hartuko dute parte, "hamar iaiztik jarraitzen dutenak eta jubenetatik jauzia eman duten beste zazpi". Lehiatzeko 60 bat egun izango dute egutegian eta, lasterketetan talde bakoitzetik ezin dutenez 12 baino gehiagok parte hartu, pozik daude kopuruarekin taldean: "Nahikoak dira, bestela asteburuero asko geratuko lirake geldirik". Urtero bezala, Lehendakari eta Euskaldun lehiaketetik kanpo, inguruan jokatzeko Espainiako Kopako probetan hartuko dute parte, eta baita Bidasoako eta Nafarroako itzulietan ere. Eibarko Klub Deportiboko taldeak Debabarreneko eta inguruko "lehen eta bigarren urteko gazteei" ematen die aukera, "jubenetatik aurrera jotzeko aukera askorik ez dagoelako bestela".

Senior mailako Avia Eibar Rugby taldeak asteburu erabakigarriaren aurrean

Emakumezkoen taldeak denboraldiko partidu guztiak irabazi ditu eta, dagoeneko, Ohorezko B mailako finalerdirako sailkatu da aurreko domekan Bartzelonako BUC taldea 15-42 gainditu ondoren. Markagailuan hasieratik hartu zien aurrea kataluniarrei eta, Nerea Garcia eta Cristina Guntin zigortuak izan eta gero 13 jokalarirekin geratu baziren ere, partiduari ondo eutsi zioten eta beharrezko kontzentrazioa erakutsi zuten. Domeka honetan Valladoliden jokatuko dute, El Salvadorren aurka, eta hor erabakiko dira multzoko lehen bi postuak. Talde biak sailkatuta daude, dena dela, Ohorezko A mailari begira gero jokatu beharko diren finalerdietarako.

Ohorezko B Mailako gizonetzkoen taldeak estatus handiagoa bizi du eta domekan VRAC hartuko du Unben denboraldiko azken



jardunaldian. Jaitsiera postuetatik ihes egiteko borrokan daude sartuta talde biak beste batzurekin batera. Aurreko jardunaldian eibartarrek Donostian eskuratutako puntua garrantzitsua izan daiteke horretan.



Azkargorta-Camina bikoteak Udaberri txapelketa irabazi du

Kadete mailako Eibarko Klub Deportiboko bikoteak Udaberri torneoko txapela jantzi zuen aurreko zapatuan Astigarragan jokatuako finalean. Andoaingo Gazteleku klubeko Beloki eta Lanzeta izan zituzten aurkari eta pilotari eibartarrak erraz nagusitu ziren (6-22). Denboraldi bikaina egin dute Caminak zein Azkargortak eta lortutakoa ondo merezita saria da gazte bientzat.

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

Emakumezkoen 2. Maila

Mulier - Eibar (domeka, 11:30)

2. B Maila

Langreo - Vitoria (zapatua, 19:30)

Emakumeen Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Leintz Arizmendi (zapatua, 17:45)

Ohorezko Erregional Maila

Eibar - Mondragon (zapatua, 17:45)

1. Erregionala

Touring - Urki (zapatua, 18:00)

Aloña Mendi - Eibartarrak (domeka, 16:30)

JUBENILAK

Ohorezko Maila Nazionala

Valvanera - Eibar (zapatua, 16:00)

Euskal Liga

Gernika - Eibar B (zapatua, 12:45)

KADETEAK

Euskal Liga

Eibar - Gernika (zapatua, 15:30)

FOBALL-ZALETUA

Chic - La Jara (zapatua, 09:00)

Ipur - JMR Erreformak (zapatua, 10:30)

Larragest - Los Paisanos (zapatua, 12:00)

Azkena Adahi - Durango (domeka, 09:00)

Garajes Garcia - Feredu (domeka, 10:30)

Slow XOK - Bar Txoko (domeka, 12:00)

ESKUBALOIA

1. Nazional Maila

Somos Eibar - Corrales (zapatua, 19:00)

Emakumeen Gipuzkoako Txapelketa

Eibar Eskubaloia - Ordizia (zapatua, 16:45)

Gipuzkoako 1. Maila

Haritza - Ormaiztegi (zapatua, 16:45)

ERRUGBIA

Ohorezko B Maila

Avia Eibar - VRAC (domeka, 12:00)

Emakumezkoen Ohorezko B Maila

El Salvador - Avia Eibar (domeka, 12:30)

SASKIBALOIA

3. Maila

Avia Eibar - Saski Axular (zapatua, 18:15)

WATERPOLOA

Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - Claret (zapatua, 14:30)

Emakumeen Euskal Herriko 1. Maila

Urbat IKE - Leioa (zapatua, 20:30)

KIROL-AGENDA OSOA
etakitto.eus HELBIDEAN

Euskadiko marka berria lortu du Imanol Egidazu Deporreko atletak


Eibarko Klub Deportiboko atletak 4. postuan amaitu zuen **Sabadellen** jokatuako 16 urtetik beherakoen pista estaliko Espainiako txapelketetako proba konbinatueta eta, horrez gain, Euskadiko marka egin zuen, 3.628 punturekin. Txapelketa berean,

Nora Zabala 8. sailkatu zen luzera jauzian. Bestalde, Oropesan egindako 20 kilometro martxako Espainiako txapelketan, Markel Gutierrez zortzigarren sailkatu zen 23 urtetik beherakoen mailan, 1:38:53 markarekin.



Pello Osoro nagusitu egin zen neguko azken triatloian ere

Antxintxiketa, bizikleta eta fondoko-eskia batzen dituen kirol modalitateko Espainiako txapeldunak ez zuen aurkaririk izan Anson jokatuako azken proban eta hiruretan nagusitu zen. Bestalde, Zornotzan aurreko zapatuan jokatuako taldekako txapelketan, Delteco Triatloi Taldeak 12. postuan amaitu zuen Euskaditik parte hartu zuten 40ren artean. Jon Illaramendi, Javi Muñoz, Txomin Osoro, Roberto Gartzia, Joseba Tamayo eta Enrique Guruzetak osatu zuten seikotea.



JOSE LUIS IRIGOIEN: Orain dela urte batzuk...

Eibarko Unibertsitateko Ikasle Mugimenduak Herri Unibertsitatea antolatu du hilaren 27 eta 28rako. Gaur egungo unibertsitate ereduaren inguruan eztabaidatuko dute bertan eta hitzaldiak, tailerrak, mahainguruak eta beste hainbat ekintza antolatu dituzte horretarako. Ikasleek gain eibartarrak ere gonbidatu nahi dituzte Herri Unibertsitateara, eta kanpoko jendearentzat bonoak jarri dituzte salgai (7 euro) hiru otordu eta lo egiteko (Beleko tabernan salgai eta, egunean bertan, Herri Unibertsitatean).

EIBARKO HERRI UNIBERTSITATEA	
MAREXOA - MARZO	
27 UNIBERTSITATEA	28 UNIBERTSITATEA
15:00 - UNIBERTSITATEA (1000€)	15:00 - ERREKALEOR (1000€)
16:30 - HEZKUNTZA (1000€)	16:00 - STANBOLIA (7) (1000€)
18:15 - HEZKUNTZA (1000€)	18:30 - HEZKUNTZA (1000€)
20:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
21:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
23:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
24:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
25:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
26:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
27:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
28:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
29:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
30:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
31:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
32:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
33:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
34:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
35:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
36:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
37:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
38:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
39:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
40:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
41:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
42:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
43:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
44:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
45:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
46:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
47:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
48:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
49:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
50:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
51:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
52:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
53:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
54:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
55:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
56:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
57:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
58:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
59:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
60:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
61:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
62:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
63:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
64:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
65:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
66:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
67:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
68:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
69:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
70:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
71:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
72:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
73:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
74:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
75:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
76:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
77:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
78:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
79:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
80:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
81:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
82:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
83:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
84:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
85:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
86:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
87:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
88:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
89:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
90:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
91:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
92:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
93:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
94:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
95:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
96:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
97:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
98:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
99:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)
100:30 - HEZKUNTZA (1000€)	19:00 - HEZKUNTZA (1000€)



Egungo unibertsitate ereduak jangile klasearen beharrak ez dituela asetzen salatzen dute.

NAHIA MARTINEZ JULEN MAILHARIN (Eibarko Unibertsitateko Ikasle Mugimendua):

“Alternatiba bat eraiki nahi duten ikasleak bilduko gara Herri Unibertsitatean”

- Zer da Eibarko Herri Unibertsitatea?

Unibertsitate eredu berri baten alde egiten dugu eta Herri Unibertsitatean hainbat gai landuko ditugu bide horretan. 'Feminismotik iraultzara', 'Erraustegia' (Ainhoa Intxaurrendietaren eskutik) eta 'Euskara eta hezkuntza' (Mikel Aiartzaguenaren eskutik) izeneko hitzaldiak eskainiko ditugu; energia berriztagarrien graduko ikasleak izanik, burujabetza energetikoaz mintzatuko gara Goiener, Errekaleor eta ikasle ohiekin; San Mameseko EHUKo ingeniartzako talde kritiko batek 'Teknologia eta kapitalismoa' izeneko hitzaldia eskainiko du; eta Gaztetxean bi mahainguru egingo dira, 'Gazteen arteko mahaingurua' eta 'Apustu-etxeak, herriaren miseria' (Igor Meltxor eta Azpeitiko ElkarEkinekin). Gainera, hainbat tailer, ekitaldi eta kontzertu ere egingo dira. Alternatiba bat eraiki nahi duten ikasleak bilduko gara, egungo unibertsitate ereduak jangile klasearen beharrak asetzen ez dituela uste dugulako. Ikasleongandik bakarrik irtengo den alternatiba bat proposatu nahi dugu eta jangile klaseari formakuntza eman, burgesiaren interesetara bideratu barik. Izan ere, burgesiarentzat etekinak ateratzeko helburu bakarrarekin irteten dira ikasleak lanmerkatura eta horrekin apurto nahi dugu. Gai horiek ikasleengan landu nahi ditugu, unibertsitateek eta batez ere EHUK ez dituztelako bultzatuko.

- Euskal Herriko hainbat tokitan egin izan dira Herri Unibertsitateak. Zergatik Eibarren orain?

Otsailaren 19tik 21era Herri Unibertsitateak egin ziren Donostian, Leioan, Bilbon, Iruñean eta Gasteizen, eta astebete geroago Herri Unibertsitate Nazionala, eta aurten Eibarren horrelako zerbait antolatzea egokia zela pentsatu dugu. Lanegunetan egingo

dugu, ikasleek Herri Unibertsitateara etortzeko beste klaseetara joateari uzten diotela irudikatu nahi dugulako.

- Eibarko Unibertsitateko Ikasle Mugimenduak antolatu du egitasmoa. Zein asmo du taldeak?

Orain dela urte batzuk sortu zen taldea, baina hainbat urtetan geldirik egon ondoren, berriz jarri dugu martxan. Astero elkartzeko gara eta Herri Unibertsitatean islatzen diren arazoak lantzen ditugu. Egitasmo honekin herriarekin kontaktua egin ahal dugula pentsatzen dugu eta Gaztetxean hainbat ekintza egingo ditugu horretarako.

- Baduzue harremanik beste ikasle mugimenduekin?

Beste unibertsitateetako mugimenduak plataforma baten barruan daude, baina guk geure aldetik antolatu dugu Herri Unibertsitatea. Eurekin kontaktuan jarri gara eta sintonia berean gaude. Beraz, harremana estutzen saiatuko gara denok batera joateko, indar handiagoa edukiko dugulako.

- Herri Unibertsitateak bi eguneko egitaraua du, baina gaur egungo unibertsitate ereduaren alternatiba bihurtu daiteke?

Helburu nagusia unibertsitate propioa edukitzea litzateke, baina ikasleengan klase-kontzientzia indartzen eta eredu alternatiboak bilatzen lan egin behar dugu lehenengo.

- Bolonia Plana, LOMCE eta hezkuntzan egon diren aldaketan ondoren, alternatibak aurkeztea beharrezkoa da?

Boloniarekin Europako botere kapitalista garrantzitsuenen interesak sartu ziren unibertsitatean eta, lehen baino alienatuago gauden neurrian, Herri Unibertsitatea moduko ekimenak garatzea garrantzitsua da, gure hitza eta parte-hartzea gizartean zabaltzen delako.



**PELLO
ETXANIZ**
(filologoa)

“Gaztelera ez da euskañolaren kausa, irtenbidea baizik”

Euskañola izango du mintzagai Pello Etzanizek martitzenean, hilaren 26an, 19:00etan ‘...eta kitto!’ Euskara Elkartean eskainiko duen hitzaldian. “Deigarria izateko erabili dut euskañola berba”, esan digu Etzanizek, baina tarteko hizkuntza izango litzateke termino egokiena. Euskañola zer den, zein ezaugarri, eta zer kausa eta zer ondorio dituen azalduko digu hitzaldian.

- Euskañola, fenomeno berria da ala aspalditik existitzen da?

Orain dela 30 urte ere entzun nuen euskañola berba, euskara eta gaztelera nahasten dituen berba egiteko moduari buruz. Ez dakit nork asmatu zuen.

- Zer da euskañola?

Aurrena esan behar da euskañola ez dela berbarik aproposena, baina jendeak horrela esan izan dio eta deigarria delako erabiltzen dut. Tarteko hizkuntza deitu beharko genioke berba egiteko modu honi, norbait bigarren hizkuntza ikasten diharduenean oraindik lehen hizkuntzaren eragina duenean hitz egiten dena. Bigarren hizkuntza ikasten hasten zarenetik bukaerara arte dagoen prozesua izango litzateke, ikasten hasten zaren unetik jabetze prozesua betetzen den arte. Hitzaldian euskañola deskribatzen saiatuko naiz. Kasu hauetan euskeraz berba egin nahi eta erdera agertzen da, erderaren eragina dago... baina uste dut gaztelera ez dela tarteko hizkuntza existitzearen kausa, irtenbidea baizik. Alde ederra dago. Irtenbidea da, euskara ikasten ari denak gauza batzuk falta dituelako ikasketa prozesu horretan dituen behar komunikatibokak betetzeko, eta falta zaiona gaztelaratik hartzen du.

- Orduan, tarteko hizkuntzaren erabilpena bigarren hizkuntza ikasten diharduen jendeak erabiltzen du bakarrik?

Badaude ukipen egoerak ere. Euskaldun zaharrek, jabetze-prozesua bete dutenek, eta txikitatik euskera ikasi eta herrian euskalkia jaso dutenek tarteko hizkuntzarekin bat egiten duten eza-

garri batzuk dituzte kasu batzuetan. Askotan gaztelera irtenbidea da profil honetako euskaldunentzat. Euskara minorizazio egoeran dagoen tokietan gertatzen da, ez dutelako prozesua erabat bete hizkuntzaren arlo guztietan. Bestetik, badaude beste hainbat faktore, indibidualak ere. “Euskalduna naiz, baina gaztelerazko hitzak sartzea guay geratzen da”, pentsatzen dutenak, adibidez.

- Tarteko hizkuntzaren erabilpena betiketzeko arriskua dago?

Bi plano ezberdinetan egin beharko genuke berba. Batetik, maila indibiduala dago. Baliteke ikaste-prozesua egiten diharduen pertsonak inoiz ez amaitzea prozesu hori. Maila indibidual horretan, gainera, nahiz eta prozesua amaitu, tarteko hizkuntzaren ezaugarriak dituen joerak dituen jendea dago, adituek ‘fosilak’ deitzen dituztenak. Euskaraz ondo egin, baina lantzean behin berrira min egiten dituzten berbak botatzen dituztenak, adibidez. Bestetik, hiztun-komunitatea dago. Tarteko hizkuntzak hizkuntzaren estandarrean aldaketak ekarri ditzake. Tarteko hizkuntzak dituen ezaugarri batzuk garaile atera daitezke egitura arteko borrokarik baldin badago. Hizkuntzaren ezaugarri oso garrantzitsu bat etengabeko aldaketa da. Tarteko hizkuntzak idiosinkrasioak dira, bakoitzak berea du, eta pertsona bakoitzak arau-bilduma ezberdinak ditu. Hala ere, amankomunean gehiago agertzen diren arauak daude eta komunitatean pisua eduki ditzakete hizkuntzaren estandarrean aldaketak eragiteko. Euskalkietan ikusi dugu aldaketa hau, adibidez.

Daniel Txopitearen unibertso femeninoa, alabaren begietatik

Daniel Txopitea margolariaren heriotzatik hogeitau urte igaro direnean, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko Ganbara aretoan “Garaietako ikuslea” erakusketa zabaldu dute. Aitari omenaldia egiteko asmoz, Ainize Txopitea alaba izan da erakusketa horren komisarioa. Erakusketan zehar, emakumearen irudiarekin lotutako berrogei margo eta marrazki jarri ditu ikusgai, gehienak (%70) familiaren funtsekoak, bildumazale pribatuek eta erakundeek erakusketarako laga dituzten beste hainbatekin batera. Horien bidez, ikusleak artistaren hogeitau hamar urteko ibilbidea eta izan



zuen garapena ikus dezake, tematika bakarrari helduta: Txopitearen unibertso femeninoa. Erakusketaz gain, ordu erdi inguruko iraupena duen dokumentala ere egin du Ainizek, aitzak bere ibilbidean lagun izan zituen hainbaten testigantzak bilduta. Javier Aguirresarobe argazki zuzendariak, Jesus Mari Lazkano margolariak eta Mari Jose Aranzasti arte historialariak hartu dute parte, besteak beste. Apirilaren 27ra arte egongo da ikusteko aukera. Bestalde, udazkenean Eibarren aita-alaben obrak batuko dituen erakusketa zabaltzeko beharrean diharduela aurreratu du.



Aza ta Porruak sukaldaritzak- ikastaroak antolatu ditu

Aza ta Porrua produktu ekologikoen kontsumo elkarteak "Ortutik ahora" izeneko ikastaro bi antolatu ditu. Biak martitzenetan eskainiko dira, Portalean. Martxoaren 26an izango da lehena eta apirilaren 9an bigarrena, eta biak 18:30ean hasi eta 21:00etan amaituko dira: "Udaberriarekin batera, ortutik produktu asko etorriko zaizkigu, eta horiek sukaldatzeko aholkuak ematen ahaleginduko gara". Interesatuak Aza ta Porrua elkarteak Juan Gisasola 9an duen lokalean eman dezakete izena, astelehen eta eguinetan, 17:00etatik 20:00etara.

Mugarriak ezagutzeko mendi-irteera martxoaren 30ean

Soraluzeko eta Eibarko Mugarriak ezagutzeko mendi-irteera antolatu dute martxoaren 30erako, 21. Korrika Kulturalaren barruan. Irteera animatzen diren guztientzat zabalik dago. Goizeko 09:00etan Untzagatik edo, bestela, 09:30ean Maltzagako Irure auzotik abiatuko dira eta 3 orduko ibilbidea izango da, "umeek ere egiteko modukoa". Amaieran hamaiketako egingo dute. Antolatzaileek azaldu duteenez, gehienez 60 lagunentzako lekua gordeko da. Izena emateko azken eguna martxoaren 28a izango da, Eibarko AEK euskaltegia deituta (943201379) edo mezua bidalita (eibar@aek.eus).



Datorren astean hasiko da larrain dantza ikastaroa Kulturalean

Larrain dantza ikastaroa antolatu dute Arrate Kultur Elkarteak. Martxoaren 26an hasiko dira klaseak, 19:00etan, eta hortik aurrera martitzenero izango dira, 19:00etatik 20:30era. Lehen saioa Arrate Kultur Elkartearen lokalean izango da. Kurtsoak maiatzaren 7ra arte iraungo du eta doan izango da. Izena emateko arratekultura@gmail.com helbidera idatzi daiteke edo, bestela, 638284912 telefono zenbakira deitu. Dantza ikastaro hau Euskal Jaiko egitarauaren barruan Arrate Kultur Elkartetik antolatu duten lehen ekimena da.



larrain dantza ikastaroa
Martxoaren 26an 19:00etan hasita
Izen ematea:
arratekultura@gmail.com
edo, 638284912 tel. zenbakian

Nanoipuin lehiaketa

Udalak, herriko bi euskaltegiekin batera antolatutako Nanoipuin lehiaketara aurkeztutako lanen artean gustokoenari botoa emateko epea domekan amaituko da. Guztira 50 bat nanoipuin jaso dituzte antolatzaileek eta guztiak www.eibarko-euskara.eus web orrian irakur daitezke. Botoa emateko ere helbide horretan sartu behar da.



Txistularien kontzertua

Domeka eguerdian, 12:30ean, Usartza Txistulari Taldeak kontzertua emango du Untzagan. Egunerako prestatu duten egitarauari jarraituta, "Gatza", "Sorgin-dantza", "Minue", "Oihartzunak" eta beste hainbat joko dituzte.

Beorlegiren bi obra ikus daitezke San Telmoko "Heriotza" erakusketan

Donostiko San Telmo Museoa "Heriotza" erakusketa zabaldu berri du eta bertan Fernando Beorlegi artista eibartarraren bi lan ipini dituzte ikusgai. Helburua "gizakiak heriotzari aurre egiteko dituen eta eduki dituen moduetara gerturatzea" da eta, horretarako, gizakiak heriotzaren aurrean izan dituen eta dituen jarrerak kontuan hartzen dituzten sei ataletan antolatu dute erakusketa, munduko kultur ezberdinetan jatorria duten askotariko objektuekin (argazkiak, dokumentuak, ikus-entzunezkoak, koadroak, komikiak...). Maiatzaren 26ra arte egongo da zabalik eta, erakusketak zabalik irauten duen bitartean, jarduera programazio zabala prestatu dute hainbat hitzaldi, mahai-inguru, tailer eta bestelakoekin.



Antzerki Jardunaldiak

LUDO CIRCUS SHOW Ludo Circus **keinu zirkoa**

MARTXOAK 22 barixakua **20:30** Coliseoa



4 urtetik aurrerakoentzat prestatutako ikuskizunearno desberdinetako zazpi artistek ia testurik gabe izaera berezia emango diote umorea eta trebezia batzen dituen lanari. Mota guztietako ikusleentzat gomendatutako pieza da, zirkoa, antzerkia, dantza eta clown generoak biltzen dituen emanaldiak, akrobazia eta malabar bakoitzean erakusten duen moduan. Muntaia harrigarri eta dibertigarriak umeendako Ikuskizun Hoberena (Xixonen) eta Zirko Ikuskizun Hoberena (Andaluzian) sariak jaso izan ditu.

7 AÑOS PTC **komedia beltza**

MARTXOAK 24 domeka **20:30** Coliseoa

Jardunaldientzat "azken urteotako antzezlan garrantzitsuenetakoaren aurrean" gaude. Ezohiko obra horretan antzezle zerrenda distiratsua aurkitzen da, Daniel Veronese Argentinako zuzendariarekin batera. Lantegi batean lau langile biltzen dira, fiskoak harrapatu eta poliziak atxilotuko dituztelako. Abokatuak euretako batek bere burua errudun bakartzat aitortzea proposatuko die; onartzen duenak kartzelan zazpi urte luze eman beharko ditu.



EL DESGUACE DE LAS MUSAS La Zaranda

MARTXOAK 27 eguaztena **20:30** Coliseoa



drama

Paco de la Zarandak zuzendutako muntaian "maitasun ariketa" egingo dute berak dioenez: "Besteei ematea da gurea; horregatik, sekula ez da galdetu behar zein gizarte taldeko den edo zein maila intelektual duen emanaldia ikustera datorrena". Espainiako antzerkigintzan gelditzen diren kultuko talde bakarrenetakoa dugu La Zaranda, jasotako sarien zerrenda amaigabearekin, tartean 2010eko Antzerki Sari Nazionala. Jardunaldiak urteotan bere lan gehienak programatu ditu; azken hau Zaragozan estreinatu dute.

LURRAK Lurrak **zirkoa, klown**

MARTXOAK 28 eguena **20:30** Coliseoa

Aire Aire, Gasteizko Kalde/Arte eta Bilboko Kalealdiak bultzatutako egitasmoaren emaitza da Lurrak ikuskizuna. Euskal kulturaren oinarritutako formatu handiko zirko ikuskizun bat ekoiztea du helburu, bertako artista, kalitate, eduki eta ikusgarritasunarekin, umore, klown, mugikortasuna eta jarduera gakoan eta eduki aldarrikatzaile leun batekin. Pertsonaiak absurdoak, komikoak eta 60ko hamarkadako langile tradizioaren artean mugitzen dira, giza talde txiki baten matxinadaren istorioa kontatzeko.

EUSKERAZ



AQUÍ EN LA TIERRA El Mayal

tragikomedia

MARTXOAK 23 zapatua **20:30** Hezkuntza Esparrua

Beste mundu bateko tragikomedia honetan etorkizunik gabeko pertsonen instintu maltzurrenen agindupean jokatzeko dute, distopia bat eskainiz. Ikuslea gutxinaka joango da aurkitzen tradizioari eusten dioten sentiberatasun azpian zer ezkutatu den, basati onaren atzean zer dagoen, eta baita lehen garaietako arkadia zoriontsuak zer gordetzen duen. Gu zer gara: ahaztuak, edo ahazten dugunok?



Tributu jaialdia gaur **ELGETAKO** Espaloian

Elgetako Espaloia Kafe Antzokiak "Rock and roll gutxi da" tributu jaialdi handia hartuko du gaur, barixakua, gaueko 22:00etatik aurrera. Hiru taldek jardungo dute tributu egiten eta Bergarako Black Lemons izango da talde gonbidatua. "Bribibliblí"-k Extremoduro taldearen abestiak interpretatuko ditu, "Los Platerok" Platero y Tú taldearenak eta, azkenik, "Triscando en la hierba"-k Marea tributatuko du. Kulturhiru-k antolatutako jaialdirako sarrerak aurretik www.kulturhiru.eus on line erosi daitezke eta baita Eibarko Kultu tabernan ere, 12 eurotan. Leihatilan 15 eurotan salduko dira. Ateak ordu erdi lehenago zabalduko dira, 21:30ean.



Antzerki-saioa bihar **MENDARON**

Arratsaldeko 19:00etan hasita, Mendaroko San Agustin kultur-gunean udaleko Kultura Sailak antolatutako "Zoz pake santuan" antzezlan izango da ikusgai, 3 euroren truke. Txalo Produzioen eskutik eskainiko den lanean Ane Gabarain eta Mikel Laskurain izango dira taula gainean, Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean. Emmanuel Robert-Espalieu da obraren egilea.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Benito Tirados Serrano. 74 urte. 2019-III-13.
- Luis Garcia Guardia. 79 urte. 2019-III-15.
- Amelia San Jose Garcia. 77 urte. 2019-III-17.
- Celsa Fernandez Iglesias. 86 urte. 2019-III-18.

jaiotakoak

- Izar Villar Serrano. 2019-III-9.
- Israa Boutrassyt. 2019-III-10.

farmaziak

- Barixakua 22
 EGUNEZ Lökunberri (Isasi, 31)
- Zapatua 23
 EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Domeka 24
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 25
 EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Martitzena 26
 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Eguaztena 27
 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- Eguena 28
 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Barixakua 29
 EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)

GAUEZ BETI - 2019AN-
 Zulueta (San Agustin, 5)

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

6	9	8	1	4	2	3	5	7
3	2	1	5	9	7	6	4	8
4	7	5	6	3	8	2	9	1
2	5	9	7	8	6	4	1	3
1	3	7	2	5	4	8	6	9
8	4	6	3	1	9	7	2	5
9	6	2	8	7	1	5	3	4
5	8	4	9	2	3	1	7	6
7	1	3	4	6	5	9	8	2

	5		7	2				
		1			5			
					9	8		3
	1				4	5		7
		5		9		2		
9		7	8				4	
5		4	6					
			9			6		
				7	3		1	

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol. Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

Barixakua 22**URTEKO BATZARRA**

19:00. Klub Deportiboko bazkideen batzarra (**19:30ean**, 2. deialdia). Klub Deportiboan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. *"Ludo Circus Show"* (Ludo Circus). 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Zapatua 23**PROEGA EGUNA**

11:00. Azoka solidarioa, bidezko merkataritza, jokoak... La Salleko GGKEren eta Izartxo taldearekin. Untzagan.

ASTELENA PARKEA

11:00/14:00 & 16:30/20:30. 3 euro (EMGI bonoarekin doan). Astelena frontoian.

IPIIN MUSIKATUA

12:00. *"Koloretako munstroa"*, euskeraz, Olga Sanchez musikaterapeuta eta Ane Lopez ipuin kontalariaren eskutik. 2-6 urteko haurrentzat, gurasoekin. Doan (izen-ematea Liburu sailean). El Corte Inglesean.

KORRIKA KULTURALA

14:30. Bertso-bazkaria. Bertsolariak: Jokin Bergara eta Manu Goiogana. Gai-jartzailea: Desiree Magro. Legarregain elkartearen.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. *"Aqui en la tierra"* (Teatro El Mayal-Ule). 5 euro. Hezkuntza Esparruan.

Domeka 24**ZUHAITZ EGUNA**

09:30. Eibarko Klub Deportiboan elkartzea.
09:30/10:30. Iturburu ikastolara oinez (1,5 km).
10:30/12:00. Tailerra eta landaketa.
12:00/13:00. Hamaiketakoa.
13:00/14:00. Eibarrera buelta.

KONTZERTUA

12:30. Usartza Txistulari Taldea. Untzagan.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Jolasteko gunere irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. *"7 años"* (Producciones Teatrales Contemporaneas). 15 euro (10'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Astelehena 25**IKASTEN**

10:00. Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatua eta pentsiodunen elkarretaratzea, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

Martitzena 26**IKASTEN**

10:00. Bisita, San Andres elizako erretablora. Hizlaria: Satur Peña.

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

HITZALDIA

19:00. *"Euskañola"*, Pello Etxanizekin. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuartea).

Eguaztena 27**ABIAN**

11:00. ABIAN Lanbide Heziketa Azokaren hasiera ekitaldia eta irekiera hitzaldiak. Azokara bisita, erakundeetako ordezkariekin.
11:30. *"STEM arloko ikasketen eta lanbideen inguruko Debabarreneko gazteen pertzepzioa"* ikerketaren emaitzak eta ondorioak aurkezteko hitzaldia. Armeria Eskolan (patioan).

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "El desguace de las musas" (La Zaranda/ T. Romea/T. Español). 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Eguena 28**IKASTEN**

10:00. "Mendekotasuna heltzen denean: zein da nire aukera?" hitzaldia, Adinduren eskutik. Sarrera libre. Armeria Eskolan.

ABIAN

10:00/14:30 & 16:00/18:30. ABIAN Azoka.
11:00. *"Enplegura bideratutako profesionaltasun zirtagiriak"* jardunaldia (Meka).
11:00. Saio informatiboa: HAZILAN 6. deialdia (Debegesa).
12:00 eta 16:00. *"Enplegua bilatzeko bide berriak"* tailerra (Debegesa). Armeria Eskolan (patioan).

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza taldearen entsegua (hastapena, veteranoen entsegua 18:00etan hasiko da).
19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ODOL-EMATEA

18:30. Odola emateko saioa, odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. *"Lurrak"* (Lurrak Antzerkia). 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

Erakusketak**Martxoaren 24ra arte:**

– "HARRIA", JUAN ANTONIO PALACIOSEN ARGAZKIAK (*Topaleku*)

Martxoaren 27ra arte:

– "GURE MUNDUA ERALDATZEKO 17 HELBURU" (*Portalea*)

Martxoaren 31ra arte:

– "EIBARKO BELOMOTORRAK" (*Eibarko Armagintzaren Museoa*)

– "13+1 MIGRAZIO BIDEAK ETA ZAINZAK" (*Portalea*)

– "LANAK ETXEAN, HOBE DENON ARTEAN" (*Portalea*)

– JON MIMOREN ARGAZKIAK (*Ei Ambigú taberna*)

– "EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARTXIBOA (II)" ARGAZKIAK (*Portalea jatetxea*)

– "EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARTXIBOA" ARGAZKIAK (*Deportiboa*)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, MAIALEN, atzo 10 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, lbairen partez.



Zorionak, EIVIND, eguaztenian urtetxua bete zenduan-eta! Musu haundi bat gurasuen eta izeko-osaben partez!!



Zorionak, AINARA, domekan 12 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat Eibarko amama eta aitxixaren partez.




Zorionak, NAIA, atzo 7 urte bete zenduazelako. Aitxixa eta amamaren partez.



Zorionak, MARTIN, bixar 2 urte beteko dozuzelako. Ondo pasa eguna! Etxeko guztien partez.



Zorionak, MARTIN, astelehenian 4 urte bete zenduaz-en-eta. Musu potolo bat famelixaren eta, batez be, Hinasen partez.



Zorionak, AMETS, domekan 10 urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Hodei eta Bihotzen partez.



Zorionak danon partez, AMAMA, astelehenian 101 urte beteko dozuz-eta. Miilla esker danagaittik. Musu haundi bat.



Zorionak, IZEI (hillaren 20xan 2 urtetxo bete zenduaz-en) eta IRAI (26xan 4 urte beteko dozuz). Musu pillua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, FELIPE eta JONE, hillaren 6xan eta 21ian urtiak bete dozuzelako. Asko maite zaituegu. Musu potolua biontzat!



Zorionak, UXUE eta NEREA, hillaren 19xan 6 urte bete zenduz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen partetik.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

23an: 17:00, 19:45, 22:30 (antz)

24an: 17:00

25ean: 20:30

"Stan & Ollie"

Zuzendaria: Jon S. Baird



(1 ARETOAN)

23an: 19:45 (antzokia), **22:30**

24an: 20:00

"Mula"

Zuzendaria: Clint Eastwood



(2 ARETOAN)

23an: 17:00, 19:45, 22:30

24an: 20:00

25ean: 20:30

"La mujer de la montaña"

Zuzendaria: B. Erlingsson



(ANTZOKIAN)

23an: 17:00

24an: 17:00 (2 Aretoa)

"Corgi. La mascota de la Reina"

Zuzendaria: Ben Stassen



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Julian Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldea eta komuna. 85 m². Kalefakzioarekin. Tel. 615-781231.
- Pisu merkea salgai Santo Domingo de la Calzada erdigunean. Bista ederrak. Kontpontzeko. Tel. 675-803734.

1.2. Errentan

- Emakume arduratsua logela hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 631-141454.
- Landetako kanping batean mobilhomea alokatzen da uztailean eta abuztuan (hila-bete osoa edo hamabostaldiak). Tel. 628-573783.
- Mutila eskaintzen da bi logela baino gehiago dituen pisua alokairuan hartzeko. Tel. 632-569245.
- Buhardila alokatzen da Txontan. Bosgarren soilaruan, igogailurik gabe. Aukera ona. Tel. 626-144098.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Plaza bateko garajea erosiko nuke Ubixan edo inguruan. Tel. 680-166507. Javi.
- Lokala salgai Urkizun. 70 m², komunarekin. Arkitektura-estudioa edo aholkularitza bulegoa jartzeko edo hizkuntza-eskolak emateko egokia. 70.000 euro. Tel. 661-377537.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-541124.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 679-946934.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 643-929554.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 622-677230.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Asteburuak barne. Tel. 698-733356.
- Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 642-487564.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 666-077157.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 666-197831.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria formakuntzarekin. Tel. 602-490595.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-449882.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 698-343477.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-950442.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-619091.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 616-585028.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-247910.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-872969.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 612-286211.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658-273486.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-189294.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-818176.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 697-292668.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-388279.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 690-134485.

- Emakumea (erizain-laguntzaile ziurtagiriarrekin) eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-624560.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 674-569736.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-735551.

- Emakume gaztea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-833469.

- Emakumea eskaintzen da jendea zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-628950.

- Emakumea eskaintzen da jendea zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-704643.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 643-407562.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 602-027589.

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 612-296098.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 664-087760.

- Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 632-733573.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-587617.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-039241.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-407923.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 617-014938.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-035973.

- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 943-208107.

4.2. Langile bila

- Pertsona behar da astelehenetik ostegunera (16:30-19:00) bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Euskalduna izatea hobetsiko da. Tel. 671-517203 eta 671-548160.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ingeleseko irakaslea (maila altuarekin) behar da Eibarko akademia baterako. Esperientzia baloratuko da. Bidali curriculum-a: academiameeting-point@gmail.com
- 2. Batxilergoko ikasleak ingles klaseak behar ditu. Tel. 634-926030.

5.2. Eskaintzak

- Neska euskaldunak klase partikularrak ematen ditu LHko ikasleentzako. Tel. 647-615265.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Akordeoi handia salgai. Modelo zaharra. Tel. 605-711422.

- Hilaren 17ko Magiaren Galarako (17:00etan) zazpi sarrera saltzen dira. 12,60 euro bakoitza. Tel. 669-186674.

- BH Fitness Astra H 286 bizikleta estatikoa salgai. Ia berria. Entrenamendu kardiobaskularrerako pantailarekin. 85 kilogramoko erabiltzailearentzat. 200 euro. Tel. 697-288990.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Ezkon-eratzuna eta belarririkoa bat aurkitu dira Urkizuko dorreetan. Jabea ...eta kittolik pasa daiteke.

Hyundai IONIQ Gama

Autoz mugitzen
uzten ez dutenerako



hibrido-entxufagarria

hibridoa

elektrikoa

Ahaztu itzazu hiri handietako kutsadura-protokoloak IONIQ-ekin. Beste inork egin ezin duena egingo duzu zuk: hiri-erdigunetik nola mugitu aukeratuko duzu, **Hyundai IONIQ Gama** delako hiru teknologia eskaintzen dizkizun bakarra: hibridoa, elektrikoa eta hibrido-entxufagarria. ECO bereizgarriarekin **Hyundai IONIQ hibridoa** duzu. Gidatze ekonomikoaz gozatuko duzu, eta emisio baxuekin. Zero emisio bereizgarriarekin **Hyundai IONIQ hibrido-entxufagarria** duzu, kotxe hibridoaren eta elektrikoaren onena batzen duena. Edo, nahiago izanez gero, **Hyundai IONIQ elektrikoa** ere baduzu; emisiorik gabeko gidatzea eta 280 kilometroko autonomiarekin.

**Hyundai IONIQ Gama 20.990€-tik aurrera
3.000€-ra arteko diru-laguntzak kudeatzen ditugu Eusko Jaurlaritzaren Renove Planarekin**

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM

GRUPO EASO MOTOR

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

HYUNDAI

8 URTE / 200.000 KM
GARANTIA DE BATERIA

5 URTE / 100.000 KM
BERMEA MUGARIK GABE

Hyundai Ioniq Gama HEV: CO2 emisio konbinatuak (gr/km): 103-106. Kontsumo konbinatua (l/100km): 4,5-4,7. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO2 emisioak (gr/km): 84-85 NEDC korrelatu zikloaren arabera lortutakoak. Hyundai Ioniq EV Gama: CO2 emisio konbinatuak (gr/km): 0 erabileran. Kontsumo elektrikoa (Wh/km): 115. Autonomia: 280 Km*. Hyundai Ioniq PHEV: CO2 emisio konbinatuak (gr/km): 26 erabileran.

Kontsumo elektrikoa (Wh/km): 117. Kontsumo konbinatua (Wh/km): 1,1. Autonomia modu elektrikoan: 63 Km*

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan (lontzi 1,6 GDI 103,8kW (141CV) DT KLASA (20.990€) modeloarentzat. BEZ, garrasia, matxulazio-zerba, sutaspen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantentze-egonaldiak barne. Hyundai-ra Aldaketa Plana aplikatu daitezke. Hyundai berri bat erosi baino 6 hilabete lehenago gutxienez, erosiaren titulartasunpean erabilitako auto baten truke. Eskaintza hau aplikagarria da Hyundai MOVE produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularentzat, Banco Cetelem, S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin. Finantziarioa finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Finantziarioari lotutako gastuak (Komisioak, Interesak edo Aseguru Programak) ez daude barne; horiek www.hyundai.es/configurador-web-ean kontsultatu daitezke. 22.390€ finantzazko ez duten bezeroentzat PSP gomendagarria. Eskaintza 2019/02/28ra arte da baliozkoa. Ikusten diren modeloei: IONIQ Style hibridoa, IONIQ Style hibrido-entxufagarria eta IONIQ Style elektrikoak. Mantentze-egonaldiak finantziarioari lotuta. Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien kilometraje-mugarik gabeko 5 urteko eta tentzio altuko bateriarentzat 8 urteko edo 200.000 km-ko (lehenago gertatzen dena) berme komertziala Hyundai sare ofizialean sardutako ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaportearen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantentze- eta berresaren baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es helbidean (*Autonomia ofiziala WLTP Gidatze Ziklo Berriaren arabera. Egiakoa autonomia gidatze-estiloak, egoera klimatikoak, errepidearen egoerak eta aire giroaren edo berogailuaren erabilera baldintzatuko dute). Kontsultatu Eusko Jaurlaritzaren Renove Planaren baldintzak hemen: www.eve.eus

SARRERA IREKIA

Armeria Eskolako patioan (EIBAR)

27 Asteazkena 10:00 - 14:30	28 Osteguna 10:00 - 14:30 16:00 - 18:30	29 Ostirala 10:00 - 14:30
--	---	--



IV. Lanbide Heziketa Azoka 2019

#ABIAN

Martxoak 27, 28, 29

DEBABARRENA

ARMERIA ESKOLA
IMH MAKINA ERREMINTAREN
INSTITUTUA
KARDALA AKUAKULTURA
MEKA LANBIDE ESKOLA
MUTRIKUKO INSTITUTUA
OLH EIBAR FPB
OLH ERMUA-MALLABIA FPB
UNI EIBAR-ERMUA

Antolatzaileak :

DEBABARRENEKO
UDALAK

LANBIDE HEZIKETAKO
DEBABARRENEKO
IKASTETXEA

Laguntzaileak :

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneiko,
Lanbide Heziketako eta
Lanbide Orokorrako Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Promoción
Económica, Medio Rural
y Equilibrio Territorial



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAIALA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



SDEIBAR
Fundazioa

Alcorta
FORGING GROUP



BM
bronymec



DANOBATGROUP



Egile



epc
Engin Power Components
Spain Europe



HAZELUR



IHRE
HIDRAULIC

Debegesa
DEBABARRENA
www.debegesa.eus

IK4 TEKNIKER
Research Alliance



SITAB



UNCETA



urkatronik



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatu.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta **twitter**ren: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, N° 12 - 1° - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com